

**Herritarren ahotsak**

**Transmisioa ikasgelan**

**Euskara eta Literatura**



*Gida didaktikoa*

*DBH 2 eta 3*

*Edukia:*



SARRERA .....	3
HELBURUAK .....	5
EDUKIAK.....	10
Eduki multzoak .....	10
Gai nagusiak.....	17
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	25
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK, FITXAZ FITXA.....	30
1.Gaia: Narrazioak: hainbat pasadizo. Ahozko testu-generoak.....	30
2.Gaia: Prozesuak: nola egiten da? Ahozko testu-generoak.....	37
3.Gaia: Deskribapenak. Ahozko testu-generoak. ....	43
4.Gaia: Ipuinak eta txistekak. Ahozko literatura. ....	51
5.Gaia: Kanta tradizionalak eta generoa. Ahozko literatura. ....	60
6.Gaia: Hiru kanta herrikoi. Ahozko literatura.....	64
7.Gaia: Hitanoaren erabilera. Euskara lagunartean. ....	69
8.Gaia: Hizkera informala: irainak. Euskara lagunartean. ....	74
9.Gaia: Euskara batua eta euskalkiak. Euskararen aberastasuna.....	82
10.Gaia: Mendebaldeko euskara. Euskararen aberastasuna. ....	88
11.Gaia: Zuberera. Euskararen aberastasuna.....	93
12.Gaia: Euskara, integrazio hizkuntza. Euskararen aberastasuna. ....	97
ESPAZIOEN ANTOLAKETA .....	104
DENBORALIZAZIOA .....	105
MATERIALAREN EGILEAK .....	107
BIBLIOGRAFIA .....	109

## SARRERA

---

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea, ahozko jardunaren bitartez. Eta bidez batez belaunaldien arteko hurbilketa egitea, lehenaldia eta oraina lotuz. Izan ere, belaunaldien arteko transmisioaren etena arazo bilakatu da azken urteotan. Bizimodua aldatu egin da, eta harremanetarako moduak ere bai. Teknologia berriei lotutako gizartean bizi gara, eta guk ere transmisioa etxeko sukaldetik ordenagailuko pantailara eramatea erabaki dugu.

Batetik, ikasleek etxean edo ingurune hurbilean dituzten adinekoen jakinduria (guraso, aitona-amona, edadeko bizilagun) gehiago baloratzea eta interesa piztea nahiko genuke. Izan ere, nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Hori bai, adinekoen lekukotasunez gainera, gazteen eta atzerritarren testigantzak ere erabili ditugu, gaur egungoak, ikasleen bizimodura eta pentsaerara gehiago gerturatzen.

**Euskara eta Literatura** ikasgairako prestatu ditugu **proposamen pedagogikoak**, 2. eta 3. mailerako. Ahozotasuna lantzeko, eta lehenaldiari begira tradizioa berritzeko. Ahozotasuna, lau ataletan banatuta: ahozko testu-generoak, ahozko literatura, lagunarteko euskara eta euskararen aberastasuna. Herriaren ahotik jasoko dituzte gaztetxoek bizipenak eta ahozko komunikazio-moldeen ereduak, ondoren beraien galbahetik pasatu, hausnartu eta ahozko jardunak sortzeko.



Hitanoaren erabilera

Ahozko testu-generoak lantzeko orain arte egin diren proposamen didaktiko garrantzizkoenetan (de Pietro & Dolz, 1997; Dolz & Schneuwly, 1998...) ahozko hizkuntza formalari eman zaio lehentasuna. Alabaina, agerikoa da eskolatik kanpo gaztetxoek lagunarteko egoera informaletan gaztelaniaz hitz egiteko joera handia dutela (Soziolinguistikako Klusterraren kale-ikerketak); eta hor ditugu gazte-hizkeraren erabilerari buruzko (Eizmendi, 2015) edo euskararen adierazkortasun ezari buruzko gogoetak ere (Esnaola, 2000). Horrenbestez, esan dezakegu gazteen mintzaira-jarduera ez formal horiek gelara eramatea ere komeni dela, gaztetxoek lagunarteko hizkera ez formalean moldatzeko estrategiak eskura ditzaten. Umorea da horretarako erabiltzen dugun tresnetako bat.

Testu-generoak lantzerakoan ez ezik, baita beste ataletan ere, lagunarteko giroa sortzen saiatu gara. Bestek beste txistek kontatzea, gazte-egoerak behatzea eta

antzeztea, bertso-antzezlanak egitea, erdarazko hitzen baliokide euskaldunei buruzko gogoeta egitea... Proposamen asko egin ditugu ahozko hizkuntza ez formala ere lantzeko, euskarari freskotasuna eta adierazkortasuna emateko, sormena lantzeko, eta azken batean, euskararen ahozko erabilera sustatzen saiatzeko. Gazte-hizkera eta hitanoa lantzeko proposamenak dira, eta euskalkien balioa ere nabarmentzen da, ikasleen nortasun kolektiboa eta indibiduala garatzeko garaian. Gainera, ikasmaterialak Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko balio du, euskal mundu ikuskeraren erakusgarri den heinean.



Ikasmaterial osagarri digitala da gurea, Curriculum aintzat hartuta sortua eta irakasleen autonomia errespetatzeko asmoz: irakasleek nahierara erabil dezaten. Irekia da, eta hainbat sekuentzia didaktiko sortzeko aukera ematen du. Irakaslearentzat erraza izango da nahi duena bilatzea, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin dezakeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>. Gainera, iruzkinak egiteko aukera dauka, eta baita bere lanketak partekatzea ere.

2009an hasi ginen ahozko ondarea hezkuntzara bideratzen. “Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua, berriz, 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker. *Herritartasunerako Hezkuntza* irakasgairako egin genituen lehen proposamen pedagogikoak.



Ondoren, *Euskara eta Literatura* ikasgaiari heldu genion. 2. alearekin hasi ginen, honekin hain zuzen. Gure asmoa guztira 3 ale prestatzea da, ahozkotasanarekin lotutako lanketak DBHko maila guztietan egin ahal izateko:



Orain arteko lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri.

## HELBURUAK

---

Gure ikasmateriala **DBHko 2. eta 3. mailako** irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta Euskara eta Literatura irakasgaia lantzeko balio du.

**EIMA 2.0.** deialdiaren baldintzei dagokienez, proiektu honek honako baldintzak betetzen ditu:

- Euskara hutsean sortutako ikasmaterial digitala da (4.1. artikulua).
- Creative Commons lizentziapean argitaratzen da (3.1. artikulua).
- Arlo hauetara zuzenduta dago (2. artikulua):
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako material osagarria da.
  - Curriculumaren euskal dimentsioa lantzeko material osagarria da.
  - Aniztasunari erantzuten dio.

Proiektu honen helburua ahozketasuna lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota Ahotsak.eus proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007 eta 23/2009 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena ere bai: hizkuntzen irakaskuntzaren helburu gisa izan behar duen lekua eta beste materien garapenerako tresna moduan duen garrantzia, hain zuzen.

Ahozketasuna lantzeko irakasgai guztiak izan daitezke egokiak. Hori bai, Euskara eta Literatura iruditzen zaigu aproposena, ahozketasuna hizkuntzaren irakaskuntzaren barnean dagoelako. Ahozketasuna ez da behar beste lantzen, gure ustez, eta hori izango da gure ekarpen nagusietako bat. Ikasleei giltza batzuk ematea egoera komunikatibo bakoitzari dagokion testuinguruaz jabetzeko; lagunarteko hizkera ez formaletan moldatzeko estrategiez jabetzeko, besteak beste.

Ahozketasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoek. Eta haien testigantzek hausnarketarako hainbat bide zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara hel daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Nagusien hitzei balioa emateko, denen iritziak entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balioko du.



Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten balioko dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balioko du.

Legezko Xedapenen testuinguruan, Curriculumean jasotako helburuekin bat etorriko da gure ikasmateriala, bai helburu orokorrekin eta baita irakasgaiko helburu zehatzekin ere. Helburu orokorrei dagokienez, Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak beteko ditu (175/2007 Dekretua):



- a) Ikasleak prestatzea pertsona helduen bizitzari ekiteko; gizarteko herritar aktibo izateko; eta izadiaren zaintzarekiko eta garapen iraunkorrekiko konpromisoa duten pertsonak izateko.*
- b) Ikasleek euskal kulturako eta kultura unibertsaleko oinarrizko elementuak eskura ditzaten lortzea.*
- c) Ikasleekin sentsibilizazio-lana egitea eta haiek gaitzea bizitzan zehar etengabe ikasteko gai izan daitezen.*

Oinarrizko hezkuntzaren helburu orokorrak, 175/2007 Dekretuan zehazten direnak, ere helburutzat hartuko ditugu: arduraz bizitzen ikastea, ikasten eta pentsatzen ikastea, komunikatzen ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, ikaslearen giza alderdiak garatzen ikastea eta egiten eta ekiten ikastea. Helburu horietako azpiatal guztiak izango ditugu kontuan, eta bereziki hauek:

***“Ikasten eta ikasten pentsatzen ikastea”*** ataletik:

*a) Modu koherentean eta kritikoa pentsatzen ikastea, eta ohiturak hartzea diziplina, esfortzua, erantzukizuna eta lan eta ikasketa indibidualerako eta taldekakorako teknikak lantzeko, hala, ikasketarekin lotutako eginkizunak eraginkortasunez egiteko eta norberaren garapenerako bitartekoak eskuratzeko. Horrek guztiak bultzatu egin behar du nork bere buruan konfiantza izatea eta ikaslearen sen kritikoa, ekimena, jakin-mina, interesa eta sormena.*

***“Komunikatzen ikastea”*** ataletik:

*a) Zuzen, egoki, autonomiaz eta sormenez ulertzea eta adieraztea euskarazko ahozko eta idatzizko testuak eta mezuak, eta horiek erabiltzea komunikatzeko, norberaren pentsamenduak antolatzeko, errealitatea interpretatzeko eta hitz egiteko bete behar diren prozesuei buruzko gogoeta egiteko. Literatura irakurtzeari, lantzeari eta aztertzeari ekitea. Hizkuntzetarako Europako Marko Komuneke B2 maila izango da esparru horretako erreferentzia.*

c) *Ikaslearen bizi-inguruneko errealitate soziolinguistikoa ikuspegi kritikoz interpretatzea, eta hizkuntzak sortzeko eta garatzeko eta hizkuntzen arteko harremanak finkatzeko faktoreak zein diren jakitea. Hizkuntzen aniztasuna errespetatzea eta aniztasun hori herrien eta gizabanakoen aberastasun eta eskubidetzat hartzea, interesa eta errespetuzko jarrerak izateko eskubide horren erabilerarekiko eta hizkuntza-normalizazioko prozesuekiko.*

d) *Informazioko teknologiak eta komunikabideak erabiltzea ikasteko eta jakintza berriak eskuratzeko prozesuan, betiere, hartutako eta sortutako mezuekiko ikuspegi kritikoa izanda.*

f) *Hitzezko hizkuntza eta arte-, matematika- eta zientzia-hizkuntzak interpretatzea eta modu aktiboan eta kritikoan erabiltzea, komunikazio-ekintza zehatzak egiteko, azalpenak eta arrazoiak emateko, eta norberaren, gizartearen eta izadiaren errealitatea egoki irudikatzen.*

**“Elkarrekin bizitzen ikastea” ataletik:**

a) *Euskal herritartzat izatea norberaren burua, kultura askotariko ingurunean, eta balioa ematea euskal hizkuntza eta kulturari edota norberak berezko eta erreferentziazko dituen; hala, ikasleak, identitate anizkunei erreparatuta, nortasun propio bat eraiki behar du, modu inklusiboan. Horrek guztiak erreferentziazko marko komun bat eraikitzen bide eman behar du, pertsonen arteko diferentziak errespetatu eta bizikidetzat erraztuko duena.*

b) *Euskal Herriko kulturaren eta historiaren oinarritzko alderdiak eta arte eta kultura ondarea ezagutzea, balioestea eta errespetatzea, eta xede horiek betetzea gainerako kultura eta gizarteekiko. Kultura eta sozietateen funtzionamenduko mekanismoak eta balioak aztertzea, batik bat, herritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak, haiek ikuspegi kritikoz aintzat hartzeko eta haiekiko iritzi eta irizpide pertsonalak izateko.*

Bidenabar, UNESCOren «XXI. menderako ikastea» programak etorkizuneko hezkuntzarako finkatutako lau oinarriak gure egingo ditugu: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea eta izaten ikastea.

Helburu didaktiko zehatzagoei begira, esan DBHn «Euskara eta Literatura» irakasgaiak hainbat gaitasun lortzea duela helburu. Horietako asko gure ikasmaterialaren bidez lor daitezkeela uste dugu.

Honakoak lirateke:



1. Hizkuntza erabiltzeko era askotako eremuetatik jasotako diskurtso idatziak eta ahozkoak ulertzea eta ikuspegi kritikoz interpretatzea, horietan ulertutakoa beste komunikazio-egoera batzuetan aplikatzeko.
2. Ahoz eta idatziz, esan-idatziak egoki, koherentziaz eta zuzen adierazteko eta solasteko gai izatea, errespetuzko eta lankidetzarako jarrera hartuz; hau da, hainbat komunikazio-egoeraren ezaugarriak eta hizkuntzaarauak kontuan izan behar dira, komunikazio-premia bakoitzari eraginkortasunez erantzuteko.
3. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzen laguntzaz, gure errealitate elebiduna ezagutzea eta interpretatzea, euskara eraginkortasunez erabiltzeko eta hizkuntza normalizazioarekiko konpromiso aktiboa garatzeko.
4. Soziolinguistikako oinarrizko ezagutzak kontuan hartuz, eleaniztasunaren eta kultura-aniztasunaren dibertsitatea ezagutzea eta interpretatzea, hizkuntza-aniztasuna lortzeko bide positibo gisa; dibertsitate hori kultura-aberastasun gisa balioetsiko da.
5. Hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea, gizarteko eta kulturako hainbat testuingurutan behar bezala komunikatzeko aukera ematen duten estrategiak hartzeko; horrela, balio-judizioa eta era guztietako aurreiritziak sortzen dituzten hizkuntza-estereotipoak saihestuko dira.
6. Testuak ulertzeko eta sortzeko prozedurak kontuan hartuz, erlazioan dauden hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, horietako bakoitza behar bezala, koherentziaz eta zuzen erabiltzeko eta transferentzia negatiboak saihesteko.
7. Informazioa bilatzean, hautatzean eta prozesatzean, gizarteko komunikazio-bideak eta informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz eta espiritu kritikoz erabiltzea, eskola-jardueran hizkuntza mintzatua eta idatzia eraginkortasunez erabiltzeko.
8. Norberaren ikaskuntza prozesuei buruz hausnartzea, beste hizkuntzetan eta alorretan jasotako ezagutzak eta komunikazio-estrategiak transferitzeko; horrela, ikaskuntzan autonomiaz jokatzeko norberak duen ahalmenean gero eta konfiantza handiagoa sentituko dute.
9. Literatura generoen oinarrizko araei eta horien bilakaera historikoaren oinarrizko etapei eta obrei buruzko ezagutza erabiltzea, literatura testuen eta literatura asmoko testuen ulermena eta produkzioa bultzatzeko.
10. Literatura ondarea balioestea, norbanakoak eta taldeak historiako eta kulturako hainbat testuingurutan izandako esperientzia sinbolizatzen; horrela, euskal literaturako, inguruan dauden herrialdeen literaturetako eta literatura unibertsaleko ereduak obrak irakurriz eta aztertuz, norberaren kultura identitatea eraiki ahal izango da.





11. Ereduzko testuak eta norberak hautatutako testuak irakurriz eta ikus-entzunezko beste eremu batzuk ere kontuan hartuta, literatura obrez gozatzea, norberaren esperientziari zentzua emateko, mundua eta giza egoera ulertzeko eta sentiberatasun estetikoa garatzeko.



# EDUKIAK

---

Euskara eta Literatura irakasgairako DBHko 2. eta 3. mailatarako zehaztutako eduki guztiekin dator bat gure ikasmateriala, eta bereziki segidan datozenekin:

## *EDUKI MULTZOAK:*

10

### *1. eduki multzoa: Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea*

Ahozko komunikazioa da gure arretagunea. Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak nahiko baztertuta egon dira eskola-sisteman. Eta beharrezkoa da sistema horrek duen garrantzia azpimarratzea, bai ikasleen komunikazio-gaitasuna oso-osorik gauzatzeko, bai ikasgelan harremanetan jarduteko eta esanahia negoziatzeko; horiek, hain zuzen, funtsezkoak dira eremu guztietan ezagutzaren eraikitze-prozesuan eragiten duten hizkuntza-trebetasun kognitiboak garatzeko. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa dela eta, eskolak euskararen ahozko komunikazioa indartu behar du, gizartean duen erabilera areagotzeko eta normalizazio prozesua bultzatzeko.

- Harreman trukeak hasten, mantentzen eta amaitzen laguntzen duten hainbat komunikazio-estrategia erabiltzea.
- Eragin-trukea norberaren eta besteen sentimenduen kontzientzia hartzeko aintzat hartzea.
- Gizarte harremanak eraikitzea helburu duten ahozko eta ikus-entzunezko interakzioetan parte hartzea.
- Elkarrizketetan parte hartzea, testuak ulertzeko nahiz sortzeko, eta era guztietako komunikazio-prozesuei buruz hausnartzeko.
- Ahozko testuak aztertzeke jarraibideak erabiltzea. Landutako ahozko testuen genero ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Elkarrekintzetan, solaskideen hizkuntza erabilerak errespetatzea.
- Ahozko elkarrizketetan, euskararen erabilerarekiko jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- Autoebaluazio eta autozuzenketa-estrategiak erabiltzea, ahozko erabilerak hobetzeko.

- Ahoskera eta intonazio egokia erabiliz adierazpenak egiteko interesa agertzea; gainera, elkarrizketa zuzentzen duten arauak errespetatuko dira eta gizarteko komunikazio-arauak aplikatuko dira.
- Curriculumaren hainbat zeregin bereziki dagozkien komunikazio-egoeratan parte hartze aktiboa izatea, bereziki ikaskuntza-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko, informazioa bilatzeko eta horren ekarpenak egiteko, argibideak eskatzeko, taldean lankidetzan aritzeko eta egindako jardueren azken emaitza adierazteko.
- Ikasleen eguneroko bizitzatik edo esperientzietatik hurbil dauden ahozko eta ikus-entzunezko testuen informazio garrantzitsuenak ulertzea. Arreta berezia jarriko da narrazioetan, egitura errazeko azalpenetan, argibideetan, arrazoiketa sinpleetan eta elkarrizketetan. 3. mailan: Arreta baita ere komunikabideetako testuetan (konbentzitzea, informatzea edo iritzia ematea helburu dutenak), aurki ditzakegun informazio eta datu garrantzitsuenak ulertzeko.
- Ahozko mezuen komunikazio-egitura antzematea: adierazitako ideien ordena eta hierarkia.
- Ahozko testuen komunikazio-egoerak identifikatu ondoren, edukia planifikatzea eta esperientziarekin lotutako gertaerak ahoz kontatzea. Landutako ahozko testuen egitura osoa eta horien atalen lotura logikoak berreraikitzea.
- Landutako estrategiak erabiltzea, testua hartzailearentzat ulergarria izan dadin. 3. mailan: mezuak berriro formulatzeko eta hartzaileen arabera egokitzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea.
- Igorlearen asmoa zein den jakitea, landutako testuetan dauden testuinguru-elementuak (2. mailan esplizituak eta 3. mailan esplizituak zein implizituak) kontuan hartuta.
- Ikasleentzat interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ordenatuta eta argi aurkeztea.
- Ikus-entzunezko baliabideak eta informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, sortutako lanei laguntzeko.
- Landutako ahozko testuen ulermena eta sorkuntza arautzeko estrategiak jakinaren gainean erabiltzea.
- Era guztietako aurreiritziak impliziturik dauden hizkuntza-erabilerekiko jarrera kritikoak bultzatzea.
- Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera izatea. 3. mailan: lan bateratua egitean hainbat iritzi izan arren, lankidetzarako jarrera izatea eta besteekiko errespetuzko kritika egitea.
- Hizkuntzaren ahozko erabilera menderatzeak norbanakoan eta gizartean duen garrantzia balioestea.

- 3. mailan: komunikazio-zailtasunak antzematea eta arazoak konpontzeko komunikazio-estrategiak erabiltzea; hau da, ahozko baliabideak nahiz ahozkoak ez diren baliabideak.
- 3. mailan: Planifikatu ondoren, ikasleentzat interesgarriak diren gizarteko, politikako edo kulturako egungo gaiei buruzko ahozko azalpen errazak ematea.
- 3. mailan: Argibideak jarraituz, gai akademikoei edo eskola-gaiei buruzko eztabaidetan eraginkortasunez parte hartzea.
- 3. mailan: Ahozko hizkuntzan gertatzen diren lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasunei buruz hausnartzea, eta horiek zein komunikazio-egoeratan erabili behar diren ezagutzea.

## *2. eduki multzoa: Idatzizko komunikazioa: irakurtzea eta idaztea*

Ahokotasuna da gure ikasmaterialekin landuko duguna, baina, horretarako, idaztea eta irakurtzea ezinbestean egin beharreko lanak izango dira. Izan ere, ahozko testuak aurrez idatzitakoak izaten dira ia beti. Egitura eta ezaugarri jakinak izaten dituzte, eta aurrez prestatu behar dira. Gainera, edozein gairi buruz dokumentatzeko, beharrezkoa da irakurtzea eta hainbat iturritatik edatea, apunteak hartzea, eskemak egitea... Idatzizko testuak ondo ezagutzea komeni da, ahozkoak kontrolatzeko; elkarren osagarriak dira. Idatzizko komunikazioa zehar-lerroa da gure ikasmaterialean. Horrenbestez, Curriculumeko 2. eduki multzoko atal guztiak izango ditugu kontuan. Hori bai, idatzitakoa gero ahoz emateko garaiari berebiziko arreta jarrita:

- Ahots goraz irakurtzea eta, zeregin horretan, komunikazio-egoera eta funtzio horretarako egokiak diren ahoskera, intonazioa eta erritmoa erabiltzea; horrez gainera, ikus-entzunezko baliabideak erabili ahal izango dira (ahotsa erregistratzeko).

## *3. eduki multzoa: Literatura hezkuntza*

Tradiziozko ahozko literatura lantzeko proposamenak egingo ditugu gure ikasmaterialean.

- Ahozko literaturaren osagaiak eta ezaugarriak ezagutzea. 3. mailan: Ahozko euskal literaturan (tradiziozkoa eta tradiziozkoa ez dena) dauden generoen (lirikoa, narrazioa eta dramatikoa) oinarritzko ezaugarriak ezagutzea, bai eta horiek buruan gordetzea eta transmititzea errazten duten literatura-baliabideak ezagutzea ere; horretarako, irakurketen iruzkin bateratuak egitea, ikusentzunezko materialak ikusi eta entzutea...
- Ahozko eta idatzizko literatura testuak aztertzea, eta labur kontatzea.

- Ahozko literatura balioestea belaunaldien arteko kultura transmititzeko eta norberaren identitate kulturala eraikitzeke bitarteko gisa.
- Poemak eta bertsoak elkarrekin irakurtzea, entzutea eta erreztatzea, erritmoaren oinarriko elementuei, neurkerari eta figura semantiko garrantzitsuenei erreparatuz.
- Bertsoak asmo literarioz eta ikasgelan landutakoen oinarriko egiturak baliatuz planifikatzea eta ekoiztea.
- Ipuinak eta kontakizun laburrak iruzkinak eginez eta espresioa landuz irakurtzea, eta, gero, istorio-elementuak, hasiera formak, garapen kronologikoa eta amaiera alderatzea eta egiaztatzea. 3. mailan: obrako pertsonaiak, ahotsa eta narrazio-ikuspegia aintzat hartzea.
- Literatura testura hurbiltzean hainbat alderdiren inguruan hausnartzea: gaia, garaia, pertsonaiak, baliabide estilistikoak...
- Euskarri desberdinetan, ikus-entzunezkoak eta euskarri digitalak barne, aurkeztutako literatura lanak aztertu, alderatu eta gogoan erabiltzea.
- Literatura ekoizpenekiko sentsibilitate estetikoa garatzea, elementu sortzaileak eta estilistikoak balioetsiz.
- Literatura-testuen balio esplizituei (3. mailan inplizituei ere bai) dagokienez, jarrera kritikoa izatea.
- Literatura hizkuntzaren oinarriko ezaugarriak ezagutzea, eta testuetan identifikatzea.
- Plangintza egin ondoren, literatura-asmoko testuak sortzea; horretarako, hausnartu eta ereduak aztertu ondoren, sormena, itxura egitea, eraldaketa edo lanketa sustatzeko teknikak erabiliko dira, bai eta irakurketan barneratutako zenbait ikaskuntza ere.
- Literatura-lanei buruz norberak dituen iritziak ematea eta lanak sortzea.
- Planifikatzeko, testualizatzeko eta berrikusteko prozedurak bultzatzea, egokitasun, koherentzia, kohesio eta zuzentasun egokia lortzeko.



#### *4. eduki maltzoa: Hizkuntzari buruzko hausnarketa*

Hizkuntzari buruz hausnartzea oso garrantzitsua da komunikazioaren ezaugarriei jabetzeko eta testuinguru bakoitzean ondo komunikatzen ikasteko.

- Euskararen hika formako hizkera ezagutzea eta, lagunarteko erregistroaren erabilera egokia den egoeretan, gero eta gehiago erabiltzea; bereziki, ahozko komunikazioan.
- Hizkuntza elementu eta funtzionamendu arau berezkoak dituen sistematzat hartzea. Elementu bakoitzak komunikazioan duen funtzioa bereiztea.

- Ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren arteko nahiz lagunarteko erabileren eta erabilera formalen arteko desberdintasun garrantzitsuak (testuingurukoak eta formari dagozkionak) behatzea, eta gizarteko komunikazio-arauek eta hizkuntza prosodikoak nahiz hitz gabeko mintzairak ahozko hizkuntza eraginkorrean duten garrantzia kontuan hartzea. 3. mailan: oinarrizko eta ohiko hizkuntza-elementuak antzematea eta erabiltzea (erregistroa, hitz gabeko mintzaira, elementu prosodikoak, kortesia-arauak...).
- Narrazio-diskurtsoen, elkarrizketen, azalpen-diskurtsoen (deskripzio eta sekuentziaegitura dutenak) eta arrazoiketa errazen ezaugarriak ezagutzea, eta kausan nahiz ondorioetan arreta berezia jartzea. 3. mailan: Diskurtsoari bizitasuna ematen dioten zenbait testu mekanismo ezagutzea eta zuhurtziaz erabiltzea.
- Euskarazko hitz, adierazpen eta esaera bereziak ezagutzea eta erabiltzea; horiek, hain zuzen, funtzio desberdinak betetzen dituzte komunikazio-egoera zehatzetan.
- Mezueta eremu lexikoak eta semantikoak antzematea eta lexiko berriaren, hitzak sortzeko mekanismoen (deribazioa eta hitz-elkarketa) eta esaeren ezagutza eta erabilera handitzea.
- Hizkuntzen artean egiten diren kalko eta transferentzia okerrak antzematea eta zuzentzea.
- Euskararen fonema bereziak eta, hizketa-kate batean, hitzek izaten dituzten fonema-erlaketak zuzen ahoskatzea.
- Norberaren sorkuntzak arautzeko eta ikaskuntza prozesuko autonomia bultzatzeko, hizkuntzari buruz hausnartzeak duen garrantzia aintzat hartzea.
- Testu-generoek dituzten egiturak eta horiek paragrafoekin duten lotura ezagutzea.
- Akatsak ikaskuntza-prozesuaren partetzat ulertzea eta horiek gainditzeko jarrera positiboa agertzea.
- Mezua hartzailarentzat ulergarriagoa izan dadin hainbat prozedura erabiltzea; bereziki, balio esplikatiboa duten adierazpenak perpausean txertatzea (aposizioa, adibideak eta erlatibo esplikatiboaren esaldiak).
- Ikasturtean landutako testuetan, igorle-aztarnak antzematea: pertsona-deixia, ziurtasuna edo aukera adierazteko hizkuntza formak eta balorazio positibo nahiz negatiboak –ikonoari, lexikoari edo sintaxiari (perpaus modalitatea) dagozkionak.
- Ebaluazioan parte hartzea eta ahozko, idatzizko eta ikus-entzunezko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea. 3. mailan: izan daitezkeen lorpenen eta zailtasunen kontzientzia hartzea.

- 3. mailan: Hizkuntza bakoitzaren ezaugarri fonetikoak eta hitzen eta adierazpenen oinarriko erritmo, intonazio eta azentu ereduak ezagutzea eta geroz eta gehiago erabiltzea.
- 3. mailan: Gertakariak azaltzen dituzten diskurtsoen (ideien eta kontzeptuen esplikazioak), arrazoiketen (bereziki, kausak eta ondorioak) eta konbentzitzea helburu duten diskurtsoen (publizitatea) ezaugarriak ezagutzea.

## *5. eduki multzoa: Hizkuntzaren dimentsio soziala*



Hizkuntza bakoitzak mundu ikuskera bat dakar eta bere dimentsio soziala dauka. Hizkuntza guztien aberastasuna da aintzat hartzekoa eta hizkuntzen aldaerak ere bai, hizkuntzen bizitasunaren eta aldakortasunaren adierazle direlako. Batez ere euskalkiei erreparatuko diegu guk.

- Hizkuntzak pertsonen arteko harremanak bideratzeko bitartekotzat eta komunitate baten identitate seinaleztat balioestea.
- Nork bere euskalkia aintzat hartzea eta erabiltzea, era askotako erregistroaren adibide gisa.
- Ereduetan oinarrituz, azterketa bateratuak eginez eta testuak entzunez, euskarak historian izan duen bilakaera eta dituen barietateak (euskalkiak) ezagutzea; horrela, beste edozein kasutan bezala, bizirik dagoen eta etengabe aldatzen ari den hizkuntzat hartuko da. Horrez gainera, ikasleak ohartuko dira hizkuntzaren ikuspegitik aldagai guztiek balio bera dutela; hau da, ez dagoela besteak baino hobea den aldagairik. 3. mailan: ahozko eta idatzizko testuetan, euskalkiak nahiz horiek dituzten funtzioak ezagutzea.
- Hizkuntza estandarrak (euskara batua) hizkuntza aldaera desberdina duten hiztunen arteko komunikazio-tresnatzat duen funtzioa ezagutzea.
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko ukipena dela eta, hizkuntza erabiltzean sortzen diren zenbait kalko oker identifikatzea eta zuzentzea. Horretarako, euskararen hitz eta adierazpen berezkoak ezagutu eta erabiliko dira.
- Hizkuntza guztien aldeko jarrera positiboak garatzea, eta, bereziki, euskararen normalizazio prozesuarekiko jarrera baikorra. Horretarako, euskararen erabileri lehentasuna emango zaio, bai pertsonen arteko harremanetan, bai ikaskuntza-egoeretan.
- Euskal gizartearen errealitate eleaniztuna eta kultura-aniztasuna onartzea.
- Soziolinguistikako oinarriko kontzeptuen esanahia interpretatzea, horiei buruzko erreferentzia egiten den testuen azterketa bateratuan oinarrituz.

- Hizkuntzei eta horien hitzunei erreferentzia egiten dieten oinarrizko kontzeptuak ezagutzea (eleanitza, elebakarra, elebiduna, erabilera-eremua, hizkuntza ofiziala, ama-hizkuntza...); horretarako, gai horiei buruzko ahozko eta idatzizko testuen ereduak aztertuko dira.
- Barneratutako ezagutzak erabiliz, ikastetxeko eta inguruko egoera soziolinguistikoa behatzea eta aztertzea.



Euskara eta Literatura ikasgaiarekin lotutako **12 fitxa pedagogiko** prestatu ditugu DBHrako, batez ere adinekoen testigantzak oinarri hartuta. **Proposamen horiek lau gai nagusitan banatuta daude, eta atal bakoitzak bere fitxa didaktikoak ditu.**

## *GAI NAQUSIAK*

17

### *A. AHOZKO TESTU-GENEROAK:*

Ahozko komunikazioa lantzeko, ahozko testu-generoak ezagutu beharra dago. Ahozko ereduen beharra nabarmena da hezkuntzan, ikasmaterialak idatzizkoan oso oinarrituta daudelako. Ahotsak.eus proiektuan hainbat testu-generoen adibideak ditugu, jardun naturalaren emaitza direnak. Eredu aproposenak aukeratzen saiatu gara, haiek oinarri hartuta ikasleak testu-generoen ezaugarriak zein testuinguruak aztertzeko eta identifikatzeko gai izan daitezen, eta beraiek ere testu-generoak sor ditzaten (hizkera estandar edo orokorrean, edozeinek ulertzeko moduan, baina hizkera formalegia erabili gabe. Hala, eguneroko bizitzarako baliagarria gertatuko zaie, eta erregistro kolokialean ere egin ahal izango dute). Horretarako, bideoekin batera, proposamen pedagogikoak prestatu ditugu.

#### **Gaiak:**

- Errelatoa: pasadizoak
- Instrukzioa: prozesuak
- Deskribapenak

### *B. AHOZKO LITERATURA*

Ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi iritsi zaigun ondarea da atal honetan landu duguna. Tradizioa ezagutzeaz gainera, tradizio hori berritzea ere bada asmoa. Horretarako, genero ikuspegia landuko da, ikuspegi kritiko baina eraikitzailez begiratuko zaio lehenaldiari eta gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen lanketak egingo dira, ikastetxetik kanporako ere erabilgarri gertatuko zaizkienak (hizkera estandar edo orokorra erabiltzea proposatzen da, baina hizkera kolokialerako ere balio dute).

**Gaiak:**

- Ipuinak eta txisteak
- Kantak eta generoa
- Tradizioa berritzen: hiru kanta herriko

### *C. EUSKARA LAGUN ARTEAN*

Lagun arteko hizkera da atal honetan jorratuko duguna: batetik, hitanoa eta, bestetik, hizkera informala edo gazte-hizkera. Euskaraz hizkera kolokiala edo informala ere izateko beharra ikusi da azken urteotan, ikastetxetik kanpo gaztetxoek erdararako joera nabarmena dutelako. Nolakoak dira erregistro informalak? Ba al dago halakorik euskaraz? Galdera horien bueltan hausnarketa eragitea da bi bideo hauen asmoa, eta ikasleen artean hizkera kolokialaren erabilera sustatzea ere bai.



**Gaiak:**

- Hitanoaren erabilera
- Hizkera informala: irainak

### *D. EUSKARA BATUA ETA EUSKALKIAK*

Bi gai nagusi jorratu ditugu atal honetan: batetik, herri-hizkerak eta, bestetik, euskararen balioa integrazio hizkuntza gisa. Herri-hizkerek naturaltasuna eta adierazkortasuna ematen diote hizkuntzari. Bi ezaugarri horien mesederako, euskalkiek eta euskara batuak elkarren osagarri izan behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da euskalkiak zein batua, biak ezagutzea eta balioestea, eta bien erabilera sustatzea. Guk batez ere euskalkietan jarri dugu arreta. Atal honetako lau bideoetako hiru euskalkien ingurukoak dira. Laugarrena, berriz, aniztasunari eta integrazioari buruzkoa da: euskarak duen gizarteratze funtzioari buruzkoa, hain zuzen ere.

**Gaiak:**

- Euskalkiak eta euskara batua
- Mendebaldeko euskara
- Zuberera
- Euskara, integrazio hizkuntza

**Fitxak**

Mallak

DBH (6)

Gaiak

Integrazioa (1)  
 Bizikidetzatza (1)  
 Euskara (6)

Ikasgaiak

Euskara eta literatura (6)

Proiektua

Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan (6)

GARBITU FILTROAK

Ikus ditzagun fitxa didaktikoak banan-banan:

### 1. Errelatoa: pasadizoak. (Ahozko testu-generoak)



Narrazio testua da errelatoa. Narrazioak bi eratakoak izan daitezke: benetan gertatuak edo fikziozkoak. Benetan gertatuak direnean, errelatoak dira. Ahotsak.eus proiektuan, errelatoa da adinekoek darabilten testu-genero nagusia. Errelatoaren sei adibiderek osatu dugu bideoa, istorio eta anekdota adierazkor bezain politekin, eta hainbat proposamen egin ditugu lanketarako.

- Landuko diren kontzeptuak: narrazioa, narratzailea, errelatoa, kontaketa, istorioa, anekdota, testu-generoa, ahozkotasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko interesa
  - Bizikidetzarako jarrera
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Beraien bizipenak kontatzeko interesa
  - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

### 2. Instrukzioa: prozesuak. (Ahozko testu-generoak)

Zer bait nola egin azaltzen duen testu-generoa da instrukzioa, aginduak edo argibideak erabilita. Egunerokotasunean darabiltzagunak dira interesatzen zaizkigunak. Elkarrizketatuta ditugun lekukoek askotan azaltzen dituzte gauzak egiteko prozesuak. Lau adibide esanguratsurekin osatu dugu bideoa (pilotak, lixiba, sareak eta txokolatea). Azalpen testu-generoari



buruzko informazioa ere ematen da proposamen pedagogikoan.

- Landuko diren kontzeptuak: instrukzioa, azalpena, prozesua, testu-generoa, ahozkotasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko interesa
  - Bizikidetzarako jarrera
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Azalpenak emateko interesa
  - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

### 3. Deskribapena. (Ahozko testu-generoak)



Deskribapenak

Zerbait nolakoa den zehaztean datza deskribapen testu-generoa. Adjektiboak eta konparazioa erabili ohi dira, ezaugarriak esplikatzeko. Zazpi deskribapenekin osatu dugu bideoa, ahozko testu-genero horren ezaugarriak agerian uzten dituztenak. Genero honek azalpen eta narrazio testu-generoekin duen lotura ere ikusten da; komunikazioa testu-genero nahasketa dela, alegia.

- Landuko diren kontzeptuak: deskribapena, konparazioa, azalpena, narrazioa, testu-generoa, ahozkotasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Gure arbasoen bizimodua ezagutzeko interesa
  - Bizikidetzarako jarrera
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Beraien ingurua nolakoa den azaltzeko interesa
  - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

### 4. Ipuinak eta txistek. (Ahozko literatura)

Lau ipuin eta bi txiste aukeratu ditugu bideo honetarako. Narrazio testu-generoa lantzeko balioko du, kontaketa hain zuzen ere. Ipuinen eta txisteen ezaugarriak ezagutzeko bidea eskaintzeaz gainera, ikasleei ahozko literaturaren mugez hausnartzeko gonbita egingo zaie. Halaber, ikasleek ipuin tradizionalak zein txistek kontatzeko estrategiak erabil ditzaten



Ipuinak eta txistek

proposamen pedagogikoak egin ditugu.

- Landuko diren kontzeptuak: ipuina, txistea, narrazioa, kontaketa, testu-generoa, ahozkoasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Garai bateko bizimodua ezagutzeko interesa
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Fikziozko istorioak sortzeko eta kontatzeko irrika
  - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia

### 5. Katak eta berdintasuna. (Ahozko literatura)



Genero ikuspegia landu dugu bideo honekin, eta baita ahozko literatura ere. Ahotsak.eus artxiboan jasota ditugun euskal kanta tradizionalak aztertu, eta genero ikuspegitik esanguratsuak direnekin osatu dugu bideoa, dozena bat guztira. Tradizionala izateak ez du esan nahi aldatu ezin denik: tradizioa nola berritu, horixe da gakoa. Ikasleek katak moldatu eta eguneratzea da proposamen pedagogikoetako bat. Ikuspegi kritikoa garatzeko bidea eskainiko zaie.

- Landuko diren kontzeptuak: kanta, tradizioa, genero berdintasuna, ahozkoasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Genero berdintasuna sustatzeko nahia
  - Garai bateko bizimodua ezagutzeko interesa
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
  - Fikziozko katak ezagutzeko, sortzeko eta kantatzeko interesa
  - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Izpiritu kritikorako eta hausnarketarako grina

### 6. Tradizioa berritzen: hiru kanta herrikoi. (Ahozko literatura)

Bertso eta olerki sorta tradizionalak dira bideo honen oinarria: hiru kanta herrikoi aukeratu ditugu, ahoz aho transmititu direnak. Horiek aztertzeko bideak eskaintzeaz gainera, ikasleek beraienak sortzeko eta bertso-antzerkiak zein bertso-rapak egiteko proposamen pedagogikoak egin ditugu.



- Landuko diren kontzeptuak: bertsoa, kanta, tradizioa, ahozotasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Garai bateko bizimodua ezagutzeko interesa
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
  - Fikziozko kanta sortzeko eta kantatzeko interesa
  - Ahozko jarduna ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Izpiritu kritikorako eta hausnarketarako grina

### 7. Hitanoaren erabilera. (Euskara lagunartean)



Hitanoaren erabilera

Hitanoa edo hika lagunarteko hizkerako adizkera alokutiboa da. Berezia da, beste hizkuntza batzuetan parekorik ez duena: konfidantza giroa dagoenean erabiltzen da, lagun artean, eta arau jakin batzuk bete behar dira (hartzailearen arabera). Hitanoaren erabilera gainbeheran joan da azken urteetan. Zergatik? Adinekoek kontatuko digute hori, bideoan. Hausnarketarako ez ezik, ikasleek hitanoa erabiltzeko hautua egiteko proposamenak egin ditugu.

- Landuko diren kontzeptuak: hitanoa, hika, erregistroa, hizkera, informala, kolokiala, ahozotasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Garai bateko pentsaera ezagutzeko interesa
  - Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Hizkera kolokiala ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Hitanoaren erabilera sustatzeko nahia

### 8. Gazte-hizkera. (Euskara lagunartean)

Erregistro informalak behar ditugu euskaraz? Zergatik makaltzen da euskararen erabilera atsedendietan eta eskolatik kanpoko jardueretan? Bideo honetan, adinekoen testigantzez gainera, gazteenak ere erabili ditugu, "Gazte Gara Gazte" proiekturako jaso genituenak. Galdera horiei buruz dituzten iritzia bildu ditugu. Ikasleak pentsaraztera, iritzia ematera, esamoldeak jasotzera eta gazte-hizkera erabiltzera bultzatzeko proposamenak egin ditugu.



Hizkera informala: irainak

- Landuko diren kontzeptuak: erregistroa, gazte-hizkera, informala, kolokiala, ahozotasuna, transmisioa

- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Hizkera kolokialak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Gazte-hizkera sustatzeko nahia

### 9. Euskara batua eta euskalkiak. (Euskararen aberastasuna)



Euskara batua eta euskalkiak

Adinekoek euskara baturik gabeko garaia ezagutu zuten, eta alfabetatu ere erdaraz egin ziren; herri-hizkera da haiek dakitena, etxean ikasitakoa. Euskalkiei eta euskara batuari buruzko haien iritziak eta konplexuak batu ditugu bideo honetan. Gaur eguneko talaiatik begiratuko diogu historiari, euskalkien eta euskara batuaren balioaz jabetzeko eta hausnarketa eragiteko.

23

- Landuko diren kontzeptuak: hizkera, euskalkiak, ahozkotatua, aldaera linguistikoa, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Garai bateko pentsaera ezagutzeko interesa
  - Adinekoen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia
  - Euskara batuaren garrantziaz jabetzeko asmoa

### 10. Mendebaldeko euskara. (Euskararen aberastasuna)

Mendebaldeko euskalkia da bideo honen oinarria, bizkaiera bezala ere ezaguna (berezi Bizkaian hitz egiten delako). Euskara batutik gehien ezberdintzen den euskalkietako bat da (zubererarekin batera), oso aberatsa. Hainbat hiztunen testigantzak batu ditugu, adineko zein gazte, bizkaieraz edo bizkaierari buruz hizketan. Forma ez ezik, edukia lantzeko aukera ere ematen du bideoak.



Mendebaldeko euskara

- Landuko diren kontzeptuak: bizkaiera, mendebaldeko hizkera, euskalkiak, aldaera linguistikoa, ahozkotatua, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Garai bateko pentsaera ezagutzeko interesa
  - Adinekoen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia



### 11. Zuberera. (Euskararen aberastasuna)

Zuberoako euskalkia da bideo honen oinarria: zuberera. Euskalki bereziena dela esan daiteke, euskara batutik gehien urruntzen dena. Hainbat hiztunen testigantzak batu ditugu, zubereraz hizketan, euskarari buruz. Forma ez ezik, edukia lantzeko aukera ere ematen du bideoak.



- Landuko diren kontzeptuak: zuberera, hizkera, euskalkiak, aldaera linguistikoa, ahozotasuna, transmisioa
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Garai bateko pentsaera ezagutzeko interesa
  - Adinekoen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Herri-hizkerak ezagutu, erabili eta balioesteko gogoia
  - Euskalkien aberastasunaz jabetu eta haien erabilera sustatzeko nahia

### 12. Euskara, integrazio hizkuntza. (Euskararen aberastasuna)



Euskara ikasi duten hainbat jatorritako etorkinen testigantzekin osatutako bideoa prestatu dugu. Euskalduna 'euskara duena' da: berdin du Euskal Herrian jaio ez izana. Euskaldun berriaren figurari balioa emateko eta hizkuntza-aniztasuna erakusteko baliagarria da. Herritartasunerako Hezkuntza ikasgairako ere balio du, bizikidetzaren gaia lantzeko.

- Landuko diren kontzeptuak: integrazioa, bizikidetzeta, ahozotasuna, eleaniztasuna, hizkuntza-aniztasuna
- Ikasleengan bultzatuko diren jarrerak:
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Bizikidetzarako jarrera erakustea
  - Etorkinen integrazioa sustatzeko grina
  - Hizkuntza-aniztasuna ezagutu eta balioesteko gogoia



## NOIZ ETA NOLA ERABILI:

---

- *NOIZ erabili:*

Euskara eta Literatura irakasgaia ematerakoan erabiliko da ikasmaterial hau, DBHko 2. eta 3. mailan. Fitxetan ez dugu zehaztuko bideo bakoitza DBHko zein mailatan erabili, kasuan kasu eta ikastetxez ikastetxe aldatu egingo baita hori. Irakasleak erabakiko du.

- *NOLA erabili:*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera.

Bilaketak egiteko **hiru modu** nagusi daude:

**-Ikasgaiak.** Hor klik eginda, irakasgaien zerrenda agertuko da, eta bat aukeratuko du irakasleak. Adibidez, “Euskara eta Literatura” aukeratuz gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio: 24 fitxa. Horietako 12 proiektu honetarako prestatutakoak dira, “Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektukoak. “Proiektua” atalean klik eginda, 12 fitxa horiek agertuko zaizkigu.

**-Gaiak.** Atal horretan klik eginda, gaien zerrenda agertuko da, eta bat aukeratuko du irakasleak. “Testu-generoak” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio: hiru fitxa.

**-Mailak.** Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere izango du irakasleak. Adibidez, DBHrako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izango da beti. Eta hantxe aurkituko du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, testua, testuingurua... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/hitanoaren-erabilera>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez (“Testua” izeneko atalean), testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan. Ikasmateriala erabilia sortutako ekoizpenak partekatzeko aukera ere bai (bidaliz gero, webgunean jarriko ditugu). Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen joango gara etengabe. Interaktiboa izango da.

## *PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK: planteamendu didaktikoa*

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako hamabi bideo dira. Eta bideo bakoitzak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira.

Bestalde, fitxa pedagogikoan informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak...



Ikus ditzagun zehaztasun gehiagoz fitxako atalak:

### **A- “Proposamen Pedagogikoa” atala:**

Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin haxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adib. [Kanta tradizionalak eta generoa](#) fitxan hauek datoz:

- *Genero berdintasuna sustatzeko nahia*
- *Sexu diskriminazioarekiko jarrera kritikoa agertzea*
- *Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoia*
- *Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa*
- *Fikziozko kantak ezagutzeko, sortzeko eta kantatzeko interesa*
- *Ahozko tradizioa ezagutu eta historiaren berri emateko baliabide bezala onartzea*
- *Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Izpiritu kritikorako eta hausnarketarako grina*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu, Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako egin genuen bezalaxe:

#### **1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:**

- Aurre-ezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)
- Hipotesiak egin

2. **Bideoa ikusi bitartean egitekoak:**

- Aurre-ezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

3. **Bideoa ikusi ondoren egitekoak:**

- Ulermena ziurtatu
- Hausnarketa eragin (galderak, jolasak, dinamikak)
- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamar azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

*“Testigantza bila”*. [Ahotsak.eus](http://Ahotsak.eus) webgunean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

*“Zu zeu elkarriketatzaile”*. Ikasleek elkarriketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

*“Hitzen arrastoan”*. Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

*“Historia egiten”*. Ikerketa eginez, historiara begiratzea, gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izateko.

*“Gaur egunera begira”*. Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

*“Eman iritzia”*. Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeko.

*“Ika-mika”*. Norberak bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritziak ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

*“Sormena lagun”*. Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak, artearen bidetik (ilustrazioa, komikia...) eta *brainstorming* edo ideia ekaitzak eta lehiaketak sustatuz.

*“Bestearen azalean”*. Besteen azalean jartzea, rol jokoen bidez, azalpenak emanez edo antzerkia eginez enpatia lantzeko.

*“Jolasten”*. Jolasa erabiliko da, eskulanak eta beste, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkotasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko

jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei beraien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlan, eztabaida, ipuina kontatzea, instrukzioak ematea...). Jarduerak laburrak izango dira eta kasu batzuetan bideoz grabatzea proposatuko dugu (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoaz jabetzeko, eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea.

- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

**Ebaluazio-irizpideak.** Fitxa guztietan jarri ditugu.

### **B-** Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaiari kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak: *Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.

# PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

**1. Gaiak:** Narrazioak: hainbat pasadizo. Ahozko testu-generoak.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/hainbat-pasadizo>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu (Sarrera, Honi buruz, Gaiak, Bideoteka). A large blue arrow points to the 'Hainbat pasadizo' section. Below the title, there is a video player showing a dog and a lamb. To the right of the video is a metadata table:

Maiak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Testu-generoak

## Proposamen pedagogikoa

### Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- *Zer dira ahozko testu-generoak?  
Zein dira?*

Ahozko [testu-generoak](#), Jean-Michel Adam-en arabera (1987): narrazioa, deskribapena, argudioa, azalpena eta instrukzioa.

- *Zer da narrazioa edo kontaketa?*
- *Zein narrazio mota daude?*

Narrazioa: denbora tarte batean eta toki batean gertatzen diren ekintzen kontaketa. Narrazioak bi eratakoak izan daitezke: benetan gertatuak eta fikziozkoak. Benetan gertatuak direnean, pasadizoak edo anekdotak dira.

2. Lau laguneko taldeetan jarrita, ikasleek 15 minutu izango dituzte anekdota labur bat pentsatzeko. Ondoren, ahoz kontatuko dituzte anekdotak (talde bakoitzetik batek). Ondo legoke bidez grabatzea (aurre-testu bezala balioko luke). Guztion artean komentatuko ditugu:

- *Kontatutako anekdotek ba al dute antzekotasunik? Zein? (Egitura, denbora, kontatzeko modua, narratzailea, hizkera...)*

### **Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Deigarri gertatutako pasarteak gogoan hartu. Adibidez, “izkiñosua” (txori mota bat), “abanta eman” (abiadan joan), “kanabel” (kainabera).

3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari zuku guztia ateratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, taldeetan:

32

- Pasadizoak interesgarriak al dira? Zergatik?
- Ondo kontatuta al daude?
- Ipuinekin nahastu daitezke? Badute antzekotasunik?
- Zein da egoera komunikatiboa? Nor da hartzailea? Zein da testuingurua?
- Aurrez prestatutakoak al dira ala bat-batekoak?

3. Kontaketak sakonago aztertuko ditugu. Ikasleak binaka jarriko dira, eta bikote bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, 1etik 4ra (eserita dauden hurrenkeran egin daiteke). Hala, bikote bakoitzak egokitutak kontaketa(k) aztertuko d(it)u.

1. Zikoinaren bisita eta Etxean hazitako belea
2. Zozketa batean, arkumea tokatu
3. Arrain gorriak
4. Arrantzarako deia eta Demetrio eta bizargina

Pasadizoak idatzita eman (Ikus 'Testua' atala). Aztertzeko garaian, honako hauek izan ditzakegu kontuan:



Kontatzen dutena:

Lekua eta denbora	
Gertaerak edo ekintzak	
Pertsonaia(k)	

Kontatzeko modua:

<b>Egitura</b> (hasiera-gertaera-bukaera?)	
<b>Denbora</b> (orainaldia/lehenaldia. Ordena: kronologikoa/saltoak denboran)	
<b>Narratzailea</b> (1. Pertsona/3. pertsona. Orojakilea/protagonista/lekukoa)	

<p>Ekintzak, deskribapenak eta balorazioak identifikatu</p>	
<p>Diskurtsoa egituratzeko <u>baliabideak</u>: erabiltzen diren formulak identifikatu, atal bakoitzean</p>	
<p><u>Ahozko baliabideak</u> identifikatu</p>	

Binaka egindako lana ikasgelan partekatuko dugu. Aukera bat: ezaugarriak arbelean idaztea.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek aukera dezakete, edo baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere (posible da bat baino gehiago egitea ere).

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, eta anekdotak bilduko dituzte herrian. Bi-hiru ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta (umetako bihurrikeriak, herriko pertsonaia ezagunen kontuak...). Elkarrizketa bideoan grabatzea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Hiru aukera:

1. Grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan

hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).

2. Bildutako narrazioak idatziz jarri, eta ondoren ikasleak narratzaile gisa jardutea, irratsaio bat sortuz. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasunez jardutea eta adierazkortasuna lortzea. Adibide gisa, ikus [Leitzako irratsaio hau](#).

3. Ikasleak beste gela batera joan daitezke herrian jasotako anekdotak kontatzera (horretarako, lehenengo gelakideen aurrean egingo dute).

- *"Bestearen azalean"*. Ipuinen eta pasadizoen arteko muga oso lausoa da, ipuinei egiantza ematen diegulako (benetako lekuetan kokatu, ekintzak benetako pertsoneri egotzi...) eta pasadizoei, berriz, ipuin itxura (exajeratu, mitifikatu...). Horrekin jolastuko dugu. Ikasleek kontalari rola hartuko dute. Binaka ipini, eta bikote bakoitzak bideoko sei narrazioetako bat aukeratuko du.

Bi modutara prestatuko dute, eta bakoitzak era batera kontatuko du gero:

1. **Erreproduktzio askea**. Batek pasadizoa bideoan adinekoek kontatzen duten estilora kontatuko du. Berari gertatu balitzaio bezala. Ez dauka bideoko berdin-berdina izan beharrik: bere erara kontatuko du, bere hitzak eta euskalkia erabilia, bideoan ez datozen xehetasunak gehitu ditzake, izenak aldatu...
2. **Fikzionatu eta ipuin bihurtu**. Pasadizo hori oinarri hartuta, moldatu eta ipuin bihurtuko dute, irudimena erabiliz. Ipuina: ia magikoki gertatzen diren ekintza harrigarriak kontatzen dituen narrazio laburra.

Narrazioak ikaskideen aurrean kontatzen dituztenean, aurrean paperik eduki gabe eta irakurri gabe egingo dute, eta [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#) aintzat hartuta. Bideoz graba daiteke, eta ondoren ahozko jarduna aztertze erabili ikasleekin (beraiek erabaki dezakete zertan asmatu duten, zer hobetu dezaketen...). Ondo egindakoak nabarmentzea komeni da.

Ondoren ere hainbat lanketa egin daitezke. Hona hemen bi proposamen:

1. Pasadizo eta ipuin politenak bideoz grabatu, eta ikus-entzunezko txiki bat prestatzea (irudiak, musika... ere erabil ditzateke), sare sozialen bidez zabaltzeko (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).
2. Beste gela batzuetara joatea pasadizoak eta ipuinak kontatzera

(LHra, adibidez; taldeka egin daiteke: astero 2-3 lagun joanda).

- **"Jolasten".** 4-5 laguneko taldeetan banatuta egingo dugu jolasa. Bala-bala hizkuntza erabiliko dugu (hitzen ordeztu bala-bala esatean datza). Zakutxo edo poltsa batean sentipenekin lotutako hainbat hitz sartuko ditugu, papertxoetan idatzita: harridura, beldurra, tristura, barrea, etsipena, nazka, haserrea... Talde bakoitzak bere papertxoak izango ditu, eta taldekideak bertatik paperak banaka ateratzen joango dira, ondokoei erakutsi gabe. Hala, taldekide bakoitzak bala-bala hizkeran bere kontaketa egin beharko du, besteek hitza asma dezaten (adibidez, nazkagarria). Jolas honen helburua, ondo pasatzeaz gainera, gorputz adierazpenaren eta hitzezkoak ez diren baliabideen garrantziaz ohartzea da.
- **"Jolasten".** Ikasleak binaka jarriko dira, eta bata besteari pasadizo edo anekdota labur bat kontatuko dio. Pasadizo hori berari gertatutakoa izango da. Gero, ikasle bakoitzak bestearen anekdota kontatuko du. Lurrean eserita egin daiteke, biribilean, egoera informala izan dadin. Beraien hizkeran kontatuko dute. Bukaeran, iritzi eta komentarioentzat tarte hartuko dugu. Hainbat galdera egin daitezke, sentimenduei lotutakoak adibidez:

- Lortu al dugu naturaltasunez komunikatzea?
- Kontatutako anekdotek erakusten al dute pertsona hori nolakoa den?
- Arazorik izan al duzu kontatzeko? Lotsak, beldurrak...
- Nola sentitu zara ondokoa zuri buruz hizketan ikusita?
- Nola sentitu zara ondokoari buruz hizketan?

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontakteta egitea proposatzen dugu, ahozkotasuna lantzeko, eta ahal dela bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko.

**2. Gaia: Prozesuak: nola egiten da? Ahozko testu-generoak.**

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/prozesuak-nola-egiten-da>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful grid background. The navigation menu includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main heading is 'Prozesuak: nola egiten da?'. Below the heading, there is a video player showing a man speaking. To the right of the video player is a metadata table with the following information:

<b>Mailak:</b>	DBH
<b>Proiektua:</b>	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
<b>Ikasgaiak:</b>	Euskara eta literatura
<b>Gaiak:</b>	Testu-generoak

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- *Zer dira ahozko testu-generoak?  
Zein dira?*

Ahozko testu-generoak, Adam-en arabera (1987): narrazioa, deskribapena, argudioa, azalpena eta instrukzioa. Denen ezaugarriak azalduko ditugu, eta arbelean jarri, ikasleen laguntzarekin. Bakoitzetik adibide bana jartzen saia gaitzke, guztion artean.

- Instrukzio testuek zein ezaugarri dituzte? Non aurki daitezke? Ahozkoak eta idatzizkoak (arauak, jarraibideak, errezetak...) aipatu.

38

**2.** Bost laguneko taldeetan jarrita, ikasle bakoitzak institututik herri/hiriko txokoren batera joateko zer egin behar den pentsatuko du. Ahoz azaltzeko moduan prestatuko du, eta argi duenean zer instrukzio eman behar dituen, taldekideei azalduko die bidea. Gainerako taldekideek, adi jarraituko dituzte gidariaren esanak, eta nora eraman dituen asmatu beharko dute.

- Bideoan ikusiko ditugunak ez dira leku batera iristeko jarraibideak. Beste prozesu batzuk deskribatzen dituzte. Gauzak egiteko prozesuak: nola egiten da X?

- Zuen ustez, zein testu-genero izango litzateke? Instrukzioa? Azalpena? Deskribapena?
- Adínekoak dira bideoan agertzen direnak. Zuen ustez, zer azalduko dute? Bota hipótesiak!

### Bideoa ikusi bitartean


1. Bideoa osorik ikusiko dugu lehenengo.
2. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, “kontzejupe” (udaletxe azpia), “sutako hautsa” (egurra erre ondoren geratzen dena), “sardaia” (arropa zintzilikatze tokia), “pabak” (sareak zintzilikatze zutoinak), “mandoa” (behorra eta astoa elkartuta sortzen den animalia antzua).
3. Bideoa lau zatitan ikusiko dugu, prozesuka. Arretagunea: *Zein testu-genero agertzen dira?* Ahozko jardunean testu-generoak nahastu egiten dira. Zerbait azaltzen ari garenean, deskribapenak sartzen ditugu tartean, argudioak... Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari tamaina hartzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Bideoako azalpenak interesgarriak al dira?
- Ulertzen al dira prozesuak? Ondo azalduta al daude? Nork azaltzen du ondoen?
- Gorputz adierazpenak laguntzen al du? Zein keinu egiten dituzte?
- Zein testu-genero identifikatu dituzue?
- Zer dakigu egiten? Lehen zer egiten zuten etxeetan, orain egiten ez dena? Dena eginda erostea gustatzen zaigu? Badakizu zerbait egiteko jarraibideak ematen? Bota adibideak.

3. Bideoako azalpenak sakonago aztertuko ditugu. Ikasleak talde txikietan jarriko dira (3-4 ikasle), eta talde bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, 1etik 4ra (eserita dauden hurrenkeran egin daiteke). Hala, talde bakoitzak egokitutako prozesua aztertuko du.



Prozesuak idatzita eman (Ikus 'Testua' atala). Aztertzeko garaian, honako hauek izan ditzakegu kontuan:



<p><u>Testu-generoak</u> identifikatu (instrukzioa, deskribapena, azalpena, narrazioa eta argudioa)</p>	
<p>Diskurtsoa egituratzeko erabiltzen diren <u>antolatzaileak eta lokailuak</u> identifikatu</p>	
<p><u>Ahozko baliabideak</u> identifikatu</p>	

Taldea egindako lana ikasgelan partekatuko dugu. Hala, guztion artean osatuko dugu taula. Testu-generoak zehaztasunez bereiztea (ez da erraza gertatzen) baino garrantzitsuagoa izango da ahozko jardunaren ezaugarri orokorrez jabetzea: nola egituratzen den, naturaltasunez tartekatzen direla generoak, gorputz espresioak daukan garrantzia...

Talde bakoitzeko kideek egokitu zaien prozesua euren hitzekin azaltzeko ahozko testu bat prestatuko dute. Ordenagailu gelan edo gelan bertan egin daiteke. Taldekide batek ahoz kontatuko du esleitutako prozesua, baina euren hizkera erabilia.



4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide (ikasleek aukeratu dezakete, ordezko beste ekoizpenen proposatu, eta baita bat baino gehiago egin ere):

- *"Zu zera elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, eta prozesuak bilduko dituzte herrian, gauzak egiteko moduak (ogia, adibidez, edo antzinako jolasen jolas-arauak). Bi-hiru ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta (ogibidearen arabera izan daiteke: okina, zapataria...). Errezetak ere jaso ditzakete. Ikasleek beraiek erabaki dezatela.

Grabazioa bideoan egitea gomendatzen dugu, gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta elkarrizketatuari argazkia ere ateratzea. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko.

Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Hona hemen aukera bat: Grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea (irudiak eta musika jarrita), sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).

- *"Sormena lagun"*. Sukaldari bihurtuko gara, eta "telebista programa bat" egingo dugu. Ikasleak binaka jarriko dira (nahi duenak bakarrik ere egin dezake), errezeta bat azalduko dute, eta bideoan grabatuko dugu (ikaskideak publikoa izango dira). Horretarako, hainbat iturri erabil ditzakete: etxean galdetu, Interneten bilatu, sukaldaritza liburuak kontsultatu... Aurkezpena prestatuko dute. Gero ahoz azalduko dute, telebistarako bailitzan. Hori bai, sukaldari izango ez dugunez, antzeztu egingo dute (irudimena erabiliko dute: lapikoa, katiluak, platerak, jakiak... ikustezinak izango dira; onomatopeiak erabil ditzakegu soinuak egiteko: *plo-plo*, *txof-txof*, *ttak-ttak*...). Testu-generoak lasaitasunez nahastuko dituzte, naturaltasunaren mesedetan (posible da pasadizoren bat edo txisteren bat kontatzea, adibidez; azalpenak ematea, deskribatzea... Adibiderako, [errezeta hau](#) ikus daiteke).

Errezeta guztiekin "telebista saioa" osatuko dugu. Errezeta bakoitzak bere bideoa izan dezake, edizio lan pixka bat eginda (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Jaki ikustezinen errezeta originalena zein den aukeratu dute guztien artean.

- *"Jolastan"*. Jolastu egingo dugu. Taldeka jarri (4-5 lagunekoak), eta talde bakoitzak jolas bat aukeratu du (asmatua ere izan daiteke). Gela barruan egiteko moduko jolasak izango dira, mugimendu asko



eskatzen ez dutenak (adibidez, karta joko bat). Jolasaren arauak zein diren erabakiko dute eta, jolastu aurretik, ikaskideei arauak azaldu beharko dizkiete: nola jolasten den (taldeko guztien artean egin dezakete, arauak edo pausoak txandaka azalduz). Ondoren, gehien gustatu zaien jolasa zein den erabaki (bozketa egin daiteke), eta jolastu egingo dute. Beste aukera bat: talde bakoitzak jolas bat egitea (beste talde batek proposatutakoa).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpena dena delakoa izanda ere, ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontaketa egitea proposatzen dugu, ahozkoasuna lantzeko ([ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#) aintzat hartuta), eta, ahal dela, bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko.

**3. Gai:** Deskribapenak. Ahozko testu-generoak.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/deskribapenak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu including 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main heading is 'Deskribapenak'. Below it, there is a paragraph of text and a video player. The video player shows a woman, Inaxi Altuna, speaking. To the right of the video is a metadata box with the following information:

Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Testu-generoak

Below the metadata box, there are five stars.

**Proposamen pedagogikoa**


**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Noiz deskribatzen dugu? Zer? Nola?
- Zein dira deskribapenen ezaugarriak? (Adjektiboak, konparazioak, elementuen kokapena...)
- Berdina al da lekuak, egoerak, pertsonak, objektuak ala sentimenduak deskribatzea? Zein deskribapen mota daude?
- Zer da deskribatzea?

Guztion artean deskribatzeari buruz hitz egingo dugu eta definizioa sortu.

Leku bat deskribatzen hasiko gara. Guztion artean ikasgela deskriba dezakegu:



### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, “ekonomika” (janaria prestatzeko aparatua), “mandioa” (baserriko sarrera), “meta” (pila), “oilo-loka” (lokatutako oiloa, arrautzak berotzen dituena, txitak jaiotzeko), “kopa” (saski mota bat, altua), “xestera” (saski irekia), “xestua” (saski errektularra), “sagaskiya” (sagarrak biltzeko saskia), “kiskiya” (sagarrak batzeko makila iltzeduna), “zaldiaren aparejuak” (gurdira lotzeko lokarriak eta abarrak), “bañeruak” (hondartzan aberatsei uretara laguntzea lanbidetzat zutenak)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztiaz jabetzeko. Bideoa bigarren aldiz ikustean, izenondo edo adjektiboak apuntatuko dituzte.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu:

- Bideoakoak deskribapenak al dira? Zergatik?
- Ondo deskribatzen al dute? Gai zarete entzun duzuen irudikatzeke? (Baserría, kasetak...)
- Xehetasun nahikoa ematen al dute denek?
- Adjektiborik eta konparaziorik identifikatu al duzue? "Arratoi kolorea" zer kolore da?
- Zein da egoera komunikatiboa? Nor da hartzailea? Zein da testuingurua?
- Aurrez prestatutakoak al dira ala bat-batekoak? Zein hizkera darabilte?
- Deskribatu al daiteke keinuekin? Gorputz espresioari dagokionez, nabarmentzeko modukorik ikusi al duzue?

Argazkiak ikus ditzakegu (ikus "Argazkiak" atalean), eta ondoren komentatu:

- *Bideoan deskribatutakoak eta argazkietakoak bat al datoz? Ba al dugu nahikoa informazio?*
- *Argazkia ikusita, zein xehetasun gehituko zenituzkete Chenard Walcker kotxeari buruz? Osatu deskribapena!*


3. Mimika edo keinu jolas txiki bat egin dezakegu, gorputz espresioaren garrantziaz jabetzeko. Ikasleak 5-6 laguneko taldeetan jarriko dira. Talde bakoitzak 10 izenondo edo adjektibo idatziko ditu, bakoitza papertxo batean (batzuk asmatzeko errazak izan daitezke: altua, baxua, argala, txikia, handia, polita... Beste batzuk, berriz, zailagoak: iluna, argia, distiratsua, makala...).

Papertxoak trukatu dituzte. Talde bakoitzeko kideek banaka eta txandaka hartuko dituzte papertxoak, eta adjektibo hori keinu bidez taldekideei azaltzen saiatu (ezingo dute hitzik egin, ezta inori papertxoa erakutsi ere).

4. Izenondoen inguruko beste jolas bat ere egin dezakegu: Ikasleak lau taldeetan jarriko ditugu. Kide batek izen arrunt bat botako du eta taldekideek, txandaka, izen horri ezartzeko moduko izenondo bat esango dute. Adibidez, esandako izena *sukaldea* bada, *txikia*, *garbia*, *gorria*, *dotorea* zein *zikina* izenondoak onartuko dira. Baina, baten batek *ausarta* edo *negartia* esaten badu, ez du balioko edo bozkatu egingo dute onartu ala ez, taldean.

5. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Sei adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezeko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Hitzen arrastoak"*. Bideoko testigantzak sakonago aztertuko ditugu. Ikasleak taldeka jarriko dira (2-3 kide), eta talde bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, 1etik 6ra (eserita dauden hurrenkeran egin daiteke edo zotz eginda). Hala, talde bakoitzak egokitu zaiona aztertuko du:



Deskribapenak idatziz eman (Ikus 'Testua' atala). Aztertze garaian, honako hauek izan ditzakegu kontuan:

Izenondoak edo adjektiboak	
Konparazioak	
Nolakoa da? Forma, tamaina, kolorea, egitura, materiala...	

Zertarako da? Erabilera	
Non dago? Elementuen kokapena	
Norberaren pertzepzioa eta sententzioak	
Entzulearen arreta erakartzeko <b>formulak</b> identifikatu (onomatopeiak, errepikapena...)	
<b>Ahozko baliabideak</b> identifikatu (bideoa berriz ikusita): aurpegia, gorputz mugimenduak eta keinuak, ahotsaren erritmo eta tonu aldaketak...	
Beste ahozko <b>testu-genero</b> batzuk identifikatu (azalpena, narrazioa, argudioa eta instrukzioa).	

Taldeka egindako lana ikasgelan partekatuko dugu. Aukera bat: arbel digitala erabiltzea.

- *"Bestearen azalean"*. Ikasleek beraien logelak deskribatuko dituzte. Modu informalean egiteko ariketa izango da (aukera bat: lurrean eserita egitea, biribilean jarrita). Ikasle bakoitzak aldamenekoari kontatuko dio bere logela nolakoa den; lehenengo batak kontatu eta besteak entzun, eta ondoren

alderantziz. Arretaz entzutea komeni da, ikaskidearen logela nolakoa den azaldu beharko baitute gero.

Deskribapena egiteko, hauek izan ditzakete kontuan: gelaren tamaina eta forma (karratua, lauki-zuzena, handia/txikia), atetik sartuta altzariak/leihoak non dauden (ezkerrera, eskubira, parean...) eta nolakoak diren (estiloa, kolorea...), apaingarriak (panpinak, posterrak, margolanak)... Posible da papera erabiltzea ere, logelaren planoan egiteko.

Ikasle guztiek hitz egin ostean (planoa azalpenak hobeto emateko erabil daiteke, baina erakutsi gabe), gela originalenak zein diren erabakiko dute. Ariketa egiten nola sentitu diren ere komentatu dezakete (zaila ala erraza gertatu zaien beraiena azaltzea, arreta jartzea, besteei deskribatzea... eta arrazoiak; ez badugu logela nolakoa den ondo irudikatu, gero zaila gertatuko zaigu azaltzea).

- *"Hitzaren arrastoan"*. Argazkiak deskribatuko ditugu. Ikasleek beraiek aukera dezatela zer deskribatu nahi duten: paisaia, pertsona edo objektua. Adibidez, batek paisaia aukera dezake eta beste batek objektua. Ikasle bakoitzak bere gustuko argazki bat aukeratuko du (etxean dutena, Interneten bilatua...). Deskribatzeko lagungarria gerta daiteke eredu edo jarraibide batzuk ezagutzea (ikus paisaiak, objektuak eta pertsonak [nola deskribatu](#)).

Banaka egingo dute azalpentxoak ikasleek. Ikaskideei beraiei argazkia nolakoa den azalduko diete, argazkia erakutsi gabe. Ikaskideen aurrez aurre jarriko da ikaslea; argazkia ordenagailuko/tabletako pantailan izan dezake, begien bistan, deskribatzen duen bitartean. Bukatzean, argazkia erakutsiko die ikaskideei. Nahi duenak asmakizun erara ere egin dezake (adibidez, objektu bat deskribatu baina zer den esan gabe, ea gelakideek asmatzen duten).

Beste aukera bat lau laguneko taldeetan egitea da. Ikasleentako batek bere argazkian ikusten duena deskribatu bitartean, taldekideek orri zuri batean marraztuko dute entzundakoa. Amaitutakoan, deskribatzaileak argazkia erakutsiko die taldekoei, eta antz handiena duen marrazkia zein den erabakiko dute. Guztion artean komentatuko ditugu marrazkiak eta argazkiak.

- *"Sormena lagun"*. Ikasleak arkitekto bihurtuko dira, eta etxeak diseinatuko dituzte: ametsetako etxeak. 5 ikasleko taldeetan, nolako etxea nahi duten erabaki beharko dute. Rolak banatuko dira: idazkaria, bozeramailea, marrazkilaria, epailea eta antolatzailea. Taldekide bakoitzak bere ametsetako etxeak izan beharko lituzkeen bost gauza ezinbesteko apuntatuko ditu paper batean. Gero, antolatzaileak batu egingo ditu, eta idazkariari irakurriko dizkio hark apunta ditzan. Guztien artean erabakiak hartuko dituzte (ideia



kontrajarriak daudenean, epaileak erabakiko du), eta etxea diseinatzen hasiko dira. Marrazkilariak planoak egingo du. Etxea diseinatuta, deskribapena idatziko dute taldekide guztien artean. Azkenik, bozeramaileak beste taldeei aurkeztuko die etxea.

Egindakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Adibidez: Etxea saltzeko iragarki bat prestatuko dute taldeka.


Iragarkian etxea nolakoa den adierazi eta erakutsiko dute, kanpotik zein barrutik. Gelaren aurrean egingo dute iragarkia taldeka, eta grabatu ere egin daiteke. Iragarki guztiak ikusi eta gero, gehien gustatu zaien etxea aukeratu dute ikasleek, eta arrazoiak emango dituzte.



- **“Jolastek”**. Mahai-joko bat asmatuko dugu guztion artean, “Tabu” jolasaren antzekoa. Talde txikietan jarrita (3-4 lagun), fitxak sortuko ditugu. Hiru eratako fitxak: lekua, animalia eta objektua. Taldetxo bakoitzak bi leku, bi animalia eta bi objektu sortuko ditu, guztira sei fitxa. Hona hemen adibide batzuk:

<b>Lekua:</b> Hondartza. Hitz debekatuak: hondartza, hondarra, itsasoa, uda
<b>Animalia:</b> Elefantea. Hitz debekatuak: Elefantea, tronpa, belarriak, hankak
<b>Objektua:</b> Telefonoa. Hitz debekatuak: Telefonoa, hitz egin, aparatua, mobila

Folio bat sei-zortzi zatitan banatu, eta fitxak sortuko ditugu, esan ezin diren hitzekin. Adibidez:



Jolasteko garaia da! Fitxak trukatu ditzute. Sortutako fitxak beste talde bati emango dizkiete, jolasteko. Taldekide bakoitzak papertxo/fitxa bat hartuko du, eta taldekideei deskribatuko die (hitz debekatuak esan gabe, noski), haiek zer den asma dezaten.

- **"Jolasten".** Jolas honek deskribapena lantzeko balio du, eta aldi berean txoriak ezagutzeko ere bai. [Txoriak.eus](http://Txoriak.eus) webgunean zuri-beltzak diren txorien argazkiak aukera ditzakegu, 15 txori guztira (adibidez: [zanga](#), [ubarroia](#), [zikoia](#)...). Bi aldiz inprimatuko ditugu aukeratutako txori horien argazkiak (guztira 30), horietako 15 ahal dela tamaina handian (folio tamainan). Inprimatutako 15 argazki handienekin panel bat osatuko dugu (ikasleek egin dezakete), eta ikasleek txorien izenak aurkitu eta idatziko dituzte txori bakoitzaren azpian. Ondoren, jolasa egingo dugu, gela hiru taldetan banatuta. Helburua: deskribapena entzunda, zein txori den asmatzea. Pausoak:



Talde bakoitzari bost txoriren argazkiak banatu (beste taldeei erakutsi gabe)
<p>Aldiko taldekide batek hartuko du hitza (txandaka, taldeko guztiek), txori bat deskribatzeko, eta beste bi taldeetako kideek zein txori den asmatu beharko dute. Deskribapena egiteko, kontuan izan ditzaketen puntu batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gorputz-atal bakoitzaren forma eta kolorea (nolakoak dituen hegala, hankak, mokia, buztana, burua, begiak...)</li> <li>• Txoriaren jarrera eta tamaina (geldi, hegan, hegoak zabalik/itxita, txori txikia/handia...)</li> <li>• Inguruan zer daukan (ura, zerua, belarra...).</li> </ul>
Deskribapena amaitu arte itxaron erantzuteko. Talde bakoitzak bozeramaile bat izendatuko du, eta txandaka erantzungo dute zein txori den.
Txoria asmatzen duen taldeak argazkia eskuratuko du.
Txori guztiak (15 orotara) asmatutakoan amaituko da jolasa.

6. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpena dena delakoa izanda ere, ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontakteta egitea proposatzen dugu, ahozkotasuna lantzeko, eta ahal dela bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusi eta aztertu ahal izateko.

**4. Gaiak:** Ipuinak eta txistekak. Ahozko literatura.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/ipuinak-eta-txistekak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu including 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main content area is titled 'Ipuinak eta txistekak' and features a video player showing an elderly man in a white lab coat. A metadata table is overlaid on the video player:

Mailak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Ipuinak

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

7. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- *Ezagutzen dituzuen ipuinak aipatu. Zer kontatzen dute? Mezurik badute? Zer ezaugarri dituzte?*

Ipuina narrazio mota bat da, fikziozkoa. Ikus ahozko testu-generoak (Adam, 1987).

Ipuina edo istorio laburra: irudimenak sortutako kontakizuna, bereziki alegiazkoa, denbora tarte batean eta toki batean pertsonaia bati/batzuei gertatutako ekintzak kontatzen dituena.

- Nork nahi du txiste bat kontatu?
- Euskarazko txiste asko al dakizkizue?
- Zer ezaugarri dituzte txisteek?

**Txistea:** barre eginaraztea helburu duen esaera edo istorio laburra; normalean asmatua izaten da, baina benetan gertatutakoa ere izan daiteke.

### **Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Deigarri gertatu zaizkien pasarteak gogoan har ditzatela.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, “mandoa” (behorra eta astoa elkartuta jaiotzen den animalia antzua), “otzarapeian” (saskipean, saskiaren azpikaldean), “aldatza” (aldapa), “ariñeketia” (korrika saioa), “afixa” (habia), “itzartu” (esnatu), “pekotza” (behi gorotza, behi kaka), “txarroa” (pitxerra)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari zuku guztia ateratzeko.

### **Bideoa ikusi ondoren**

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- *Gustatu al zaizkizue bideoeko ipuin eta txisteak?*
- *Ondo kontatuta al daude? Zergatik?*
- *Zer hizkera darabilte?*
- *Gorputz espresioa, ahots aldaketak, keinuak... ikusi al duzue nabarmentzeko modukorik?*
- *Aurrez prestatutakoak ala bat-batekoak dira? Ipuin kontalariek berdín kontatzen al dute?*
- *Zeín da egoera komunikatiboa? Nor da hartzailea? Zeín testuingurua? Berdín kontatuko al lukete aurrean ume bat balute?*

3. Ipuinak sakonago aztertuko ditugu. Ikasleak binaka jarriko dira, eta bikote bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio, 1etik 4ra (eserita dauden hurrenkeran egin daiteke). Hala, bikote bakoitzak egokitutako ipuina aztertuko du.

- a) *Kalabaza eta mandoa*
- b) *Axelko eta Otsoko*
- c) *Kipuliotxu*
- d) *Peru eta Maria*

Ipuinak idatzita eman (Ikus 'Testua' atala). Aztertzeko garaian, honako hauek izan ditzakegu kontuan:

**Kontatzen dutena:**

Lekua eta denbora	
Arazoak, ekintzak eta konponbideak	
Pertsonaia(k)	

**Kontatzeko modua:**

Egitura (hasiera-gertaera(k)-bukaera?)	
Denbora (orainaldia ala lehenaldia? Ordena: kronologikoa ala saltoak denboran?)	
Narratzailea (1. pertsonan ala 3. pertsonan? Orojakilea, protagonista ala lekukoa?)	

<p>Entzulearen arreta erakartzeko <b>formulak</b> identifikatu (onomatopeiak, errepikapena, exajerazioa, esamolde indartsuak...)</p>	
<p>Ekintzen narrazioa, azalpenak, deskribapenak eta elkarriketak identifikatu</p>	
<p>Diskurtsoa egituratzeko <b>baliabideak</b>: erabiltzen diren formulak identifikatu, atal bakoitzean (esaerak eta lokailuak)</p>	
<p><b>Ahozko baliabideak</b> identifikatu (bideoa berriz ikusita): aurpegia, gorputz mugimenduak eta keinuak, ahotsaren erritmo eta tonu aldaketak...</p>	

Binaka/hirunaka egindako lana ikasgelan partekatuko dugu. Aukera bat: ezaugarriak arbelean idaztea.

- Orain txisteei erreparatuko diegu. Lehenengo, bideoko bi txisteei buruzko iritzia eskatuko diegu.

- *Ulertu al dituzue? Zuen ustez, badute graziarik?*
- *Ondo kontatuta al daude? Zergatik?*

Ikasleek bururatzen zaizkien txistek kontatuko dituzte (guztira bospasei), eta zer ezaugarri dituzten aztertuko dugu.

- *Kontatutako txistek ba al dute antzekotasunik?*
- *Zer ezaugarri dituzte (luzera, egitura; errepikapena, tonua, exajerazioa, erritmoa...)?*

**5. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Bost adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- ***"Za zera elkarrizketatzaile"***. Ikasleak kazetari edo ondare biltzaile bihurtuko dira, eta ipuinak eta txistek bilduko dituzte herrian. Bi-hiru ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta. Elkarrizketa bideoan egitea gomendatzen dugu (ikus grabazioak egiteko [Jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta ondo legoke elkarrizketatuari argazkia ere ateratzea. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko. Bilketa lana euren kabuz egingo dute, eskola orduetatik kanpo; lanketa, berriz, ikastetxean. Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Hona hemen hiru aukera:



- a. Grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Adibidez, txiste bilduma eta/edo ipuin bilduma.
  - b. Bildutako ipuinak idatziz jarri, eta ondoren ikasleak narratzaile gisa jardutea, irratsaio bat sortuz. Sustatuko duguna: herriko hizkera erabiltzea, naturaltasuna eta adierazkortasuna lortzeko. Adibide gisa, ikus [Leitzako irratsaio hau](#).
  - c. Ikasleak beste gela batera joan daitezke herrian jasotako ipuinak kontatzera (horretarako, lehenengo ipuinak ondo prestatu –moldatu, kontatera hobetu...- eta gelakideen aurrean egingo dute).
- *"Sormena lagun"*. Bideoipuinak sortuko ditugu bideoko ipuinekin. Ipuina gure erara kontatuta eta hainbat ahotsekin grabatuko dugu, eta gertaerekin bat datozen marrazkiak egingo ditugu, ipuina janzteko. Bideoipuin adibideak: [Kokoriko txitatxoa](#), [Juan eta otsoa](#) eta [Ausarten kluba](#). 4-5 pertsonako taldeetan egingo dituzte bideoipuinak, talde bakoitzak berea. Bideoko lau ipuinez gainera, beste hauek ere erabil daitezke (eta baita beste batzuk ere; ahozko euskal tradiziokoak, ahal dela): [Katu beltzaren ipuina](#), [Hontzaren ipuina](#) eta [Fernando amezketarra](#). Herri-hizkera mantendu egingo dute; hori bai, bakoitzaren herriko hizkerara egokitu daiteke ipuina. Pausoak:

- 1. Ipuina moldatzea eta hobetzea. Jasotakoak bat-batekoak dira, inprobisatuak. Hobeto ere kontatu daitezke, prestatuta (hasierako eta bukaerako formulak, gorputz espresioa, elkarrizketak...).
- 2. Ipuina grabatzea, audioan. Ikasle bakoitzak ahots bat egin dezake (narratzailea eta pertsonaiak).
- 3. Ipuina ilustratzea. Ipuineko atal bakoitzerako egokiak izan daitezkeen marrazkiak egingo dituzte.
- 4. Bideoa prestatzea, marrazkiekin eta ahotsarekin. Posible da musika eta efektuak sartzea ere (bideo ediziorako, oinarritzko programaren bat erabiltzen erakutsi eta ereduak eman).
- 5. Bideoak ikasgelan aurkeztuko dituzte, ikaskideei erakusteko. Lanaren prozesua ere azalduko dute (nola egin duten, zer zailtasun izan dituzten, esperientzia nolakoa izan den).

- **“Jobasten”.** Bakoitzak hitz bat esan, eta guztien artean istorio bat osatuko dute. Talde handietan egin daiteke, edo gelakide guztiek batera. Lehenengo hitz batekin egin daiteke, gero bi hitzekin (bakoitzak bi hitz esatea) eta azkenik hiru hitzekin (bakoitzak hiru hitz segidan). Berdin du istorioak zentzurik ez badu. Beroketa ariketa moduan erabil daiteke, ipuinak asmatzen hasi aurretik (ikus hurrengo proposamena). Irudimena martxan jartzeko balioko du.
- **“Bestearen azalean”.** Ipuin kontalari bihurtuko gara. Ikasleek taldeka jarri (3-4 lagunekoak; idazkaria eta bozeramailea izendatu) eta haurrentako ipuin bat asmatuko dute, ipuinak sortzeko eta kontatzeko baliabideak kontuan izanda. Ipuina prest dutenean, kontatu egingo dute. Pausoak:

- **1. Ipuina asmatu.** Aurrez aztertutako ipuinen ezaugarriak kontuan izan. Egitura klasikoa erabil dezakegu:

- **Hasiera:** Aurkezpena. Pertsonaiak eta kontatuko duguna kokatu (denbora eta lekua, pertsonaiekin lotutako azalpenak eta deskribapenak...).
- **Korapiloa:** Gertaerak, ekintzak, arazoak... Bata bestearen atzetik gertatzen diren gorabeherak (batak bestea dakar).
- **Bukaera:** Arazoa konpondu da, bidearen/abenturaren amaiera iritsi da... Bukaerak harridura sortzen badu, hobe.

Guztien artean pentsatu, eta idazkariak apunteak hartuko ditu. Zirriborroari oniritzia emandakoan, narrazio literarioagoa egingo dute (hasierako formulak, elkarrizketak, deskribapenak...). Taldeko bozeramaileak ipuina taldekideen aurrean irakurriko du, eta zer hobe/alda daitekeen identifikatuko dute guztien artean.

- **2. Ipuina kontatzeko prestatu.** Taldeek entseguak egingo dituzte. Rolak bana ditzakete: batek narratzailearena egin eta besteek pertsonaien ahotsak, adibidez. Keinuak, tonua, erritmoa... dena zainduko dute. Ipuin kontalaritzaren teknikak ezagutzeko, ipuin kontarien bideo batzuk ere ikus eta komenta ditzakegu (ikus “Testuingurua” atalekoak). Hauek ere baliagarriak gerta daitezke: [Ipuinak kontatzeko gida](#), Kike Amonarrizek Koldo Amestoyri egindako [elkarrizketa](#) eta [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

- **3. Ipuina kontatu.** Gela girotuko dugu: argi gehienak itzali, kandelaren bat jar daiteke, ikasleak (entzuleak) lurrean eseri... Talde bakoitzak erabakiko du ipuina nola kontatu nahi duen: zutik, aulkietan eserita, antzerkia eginez...

Ipuinak bideoz graba daitezke, eta ondoren ahozko jarduna aztertzeko erabili ikasleekin (beraiek erabaki dezakete zertan asmatu duten, zer hobetu dezaketen...). Ondo egindakoak nabarmentzea komeni da betiere.

Ondoren ere hainbat lanketa egin daitezke. Hona hemen bi proposamen:

- a. Ipuinak bideoz grabatu, eta ikus-entzunezko txiki bat prestatzea (irudiak, musika... ere erabil ditzakete), sare sozialen bidez zabaltzeko (bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak emango zaizkie).
  - b. Beste gela batzuetara joan ipuinak kontatzera (LHra, adibidez). Ipuin kontaketa saioa antolatzea, alegia.
- **"Sormena lagar".** Txiste maratokia. Binaka edo hirunaka jarrita (eserita dauden hurrenkeran, adibidez), ikasleek 15-20 minutu izango dituzte txistek pentsatzeko eta nola kontatu entseatzeko. Ahoz kontatuko dituzte txistek, banan-banan. Ikasle bakoitzak bana. Giro informala sortzeko, lurrean eserita eta biribilean egin daiteke kontaketa. Ondo legoke bideoz grabatzea (aurretestu bezala balioko luke). [Txistek kontatzeko gida](#) baliagarria gerta dakiguke ideia batzuk hartzeko (lehen lau orriak bereziki).

Txiste-lehiaketa moduan planteatu daitezke. Besteen txistek entzun ahala, gehien gustatu zaizkienak apuntatuko dituzte (adibidez bi). Bukaeran, txiste onenak aukeratuko dituzte guztien artean (bozka gehien jaso dituztenak). Hausnarketa hau ere egin daiteke emaitzen inguruan:

- *Aukeratutako txistek beste guztiak baino askoz hobek al dira?*
- *Kontatzeko moduak (keinuek, jarrerak...) zer neurritan eragin du arrakastan?*
- *Txiste txar bat graziarekin kontatzea posible al da?*

6. **Ekoizpena partekatzea.** Ekoizpena dena delakoa izanda ere, ikasleek beti ahozko aurkezpena/azalpena/kontaketa egitea proposatzen dugu, ahozkotasuna lantzeko, eta ahal dela bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusi eta aztertu ahal izateko.

**5. Gaiak:** Kanta tradizionalak eta generoa. Ahozko literatura.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kanta-tradizionalak-eta-generoa>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website. The header has a colorful grid background with the text 'ahotsak IKASGELAN' and 'ahotsak.eus'. Below the header are navigation buttons: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main content area is titled 'Kanta tradizionalak eta generoa'. Below the title is a video player showing an elderly woman, Kontxita Zaldúa Urnieta, in 1924. To the right of the video is a metadata box with the following information:

- Proiektua:** Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Genero berdintasuna, Kantuak eta jolasak, Bizikidetzak

There are five stars below the metadata box. A blue arrow points to the video player, and a blue circle with the number '60' is on the right side of the page.

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egin. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. Garai bateko bizimoduari buruz hitz egingo dugu gaur. Emakumeen bizimoduari buruz, hain zuzen ere. Halako galderek hausnarketarako eta iritzi-trukerako bidea eman dezakete:


- Zuen ustez, emakumeak eta gizonak berdín tratatzen al zítuzten sasoi batean? Lan berak egiten al zítuzten (etxean, kalean)?
- Antzínako kantak orduko pentsaeraren isla dira. Zein euskal kanta ezagutzen dítuzue? Arbelean jartzen joan (boluntarioa eskatu):  
*Emakumei buruz hitz egiten duen kantarik bada tartean? Zer kontatzen du? Begiratu ea zer ikuspegi ematen duen. Berdintasunezkoa al da? Gaur egungo egoerarekin bat al dator?*

**Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurretik hitz egindakoekin bat datozen.
2. Euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, “pardel ezkontza”: umeak izateko ezkontzea. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia ondo barneratzeko.

**Bideoa ikusi ondoren**

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, taldeetan banatuta. “World café” dinamika erabiliko dugu horretarako. Gela lau taldetan banatuko da, eta biribilean jarriko dira, gelako lau erpinetan. Bideoko gai bakoitzak bere txokoa izango du ikasgelan. Folio zuri batean letra handiz egongo da idatzita txoko horretako gaia:



Talde bakoitzean egokitu zaien gaiari buruz hitz egingo dute. Honako galdera hau izan daiteke akuilua: *Nolako zen garai bateko egoera eta nolako da oraingoa?*

Txoko bakoitzean idazkari bat eta bozeramaile bat izendatuko dituzte; sortzen diren iritziak idazkariak orri zuri batean bilduko ditu. Gero, talde bakoitzeko bozeramaileek beraien gaiaren inguruan bildutako iritziak laburtu, eta ikaskideen aurrean azalduko dituzte. Bukaeran, iritzi-trukerako beste tarte bat izango da.

3. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordezko beste ekoizpenen bat proposatu ere):
  - *“Za zeu elkarrizketatzaile”.* Pertsona nagusi bat elkarrizketatu, bi-hiru

ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta. Kanta tradizionalak jasotzea izango da helburu nagusia, baina aukera hori emakume-gizonen berdintasunaren inguruko galdera batzuk egiteko ere baliatu daiteke. Elkarrizketa bideoan egitea gomendatzen dugu, gero ikasgelan ikusi ahal izateko (elkarrizketak egin aurretik, ikus [jarraibide orokorrak](#)), eta elkarrizketatuari argazkia ateratzea ere ondo legoke. Ikasleek aurkezpen txiki bat ere prestatuko dute: elkarrizketatuaren biografia laburra, nondik ezagutzen duten, eta jasotakoari buruzko azalpenak zein iritzia.

Elkarrizketa horien [transkripzioa](#) egitea aukera polita izan daiteke, eta baita grabazioak [ahotsak.eus](#) proiektura bideratzea ere.

Jasotako kanta guztiekin bideo bat presta dezakete, gero herriko ondare hori sare sozialetan zabaltzeko.

- *“Gaur egunera begira”*. Talde txikiak sortu eta bideoan agertu diren hiru gaiari buruzko ikerketa-lanak egingo dituzte. Gaiak:

- Etxeko lanen banaketa
- Berdintasuna lan munduan
- Umeen eta adinekoen zaintza

Talde bakoitzak gai baten inguruko gaur egungo egoerari buruz informazioa bilatuko du bere inguruan: hedabideetan, Interneten, etxekoei eta herritarrei galdetuz, ikastetxean edo kalean inkesta txiki bat betearaziz... Informazioa bildu ondoren, emaitza beste ikaskideen aurrean azalduko dute, aurkezpen txiki bat prestatuta.

Aukera bat: talde bakoitzak horma-irudi bat prestatzea, bildutako informazioarekin; aurkezpenaren ondoren, ikastetxeko hormetan jar ditzakete.


- *“Jolastex”*. Hitzekin egingo dugu jolas. Bideoan agertzen diren kanten letrei erreparatuko diegu. “Zirt-zart” kantarekin hasiko gara. Sasoi batean ohikoa ez zen ikuspegi bat ematen du: emakumeak ezkondu gabe ederki bizi direla dio, eta senarra karga bat izan daitekeela. Antzinako kanta da, anonimoa. Letra irakurri ondoren (ikus “Testua” atalean), kantatu egingo dugu. Gero, guztion artean hitz batzuk aldatuko dizkiogu, kanta gaur egungo bizimodura eta ikuskerara egokitzeko (gaur egun umeak izateko ez dago ezkondu beharrik, ala? ‘Neskazahar’ hitza ere ez da asko erabiltzen, nahiz eta bikotea izateari garrantzi handia ematen zaion oraindik ere), eta berriz kantatuko dugu. Taldeka jarri, eta bideoa kantu-doinuetako bat aukeratuko du talde bakoitzak.

Bi aukera izango dituzte:

- a. Kanta moldatu, hitz batzuk aldatu, eguneratu. Doinua ez ezik, jatorrizko letra eta gaia aintzat hartuko ditugu. Izenburua asmatu.
- b. Kanta berri bat sortu, berdintasunaren aldekoa. Doinuari eutsi, letrari ez. Izenburua asmatu.

Talde bakoitzeko kideek beraien kanta ezagutaraziko diete ikaskideei. Kantatu aurretik, zein doinu aukeratu duten eta kantaren izenburua zein den azalduko dute. Kantak grabatzea eta sare sozialetan zabaltzea da aukera bat.

- *"Sormena lagun"*. Bertsio-lehiaketa antolatuko dugu. Nahi duten abestia aukeratuko dute, eta moldatu: letra aldatuko diote. Lehiaketan parte hartzeko irizpideak:



Ikasleak parte hartzera animatzeko, Wazemank taldearen bideo bat ikus daiteke gelan (adibidez, [Joselu anaiak](#), [Negu gorriak](#) edo [Barricada](#)). Data bat ipiniko da lanak entregatzeko. Epaimahaia: ikasleek erabakiko dute; bozketa egin daiteke ikasgeletan.

Bideoa/audioa entregatzeaz gainera, taldeek gelan bertan ere egin dezakete erakustaldia ('kontzertua' eman), ikaskideen aurrean.

4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak erakusteko. Aurkezpenak laburrak izango dira eta ondo legoke bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)



**6. Gaia:** Hiru kanta herrikoi. Ahozko literatura.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/hiru-kanta-herrikoi>

The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The navigation menu includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main heading is 'Hiru kanta herrikoi'. Below the heading is a video player showing a man playing an acoustic guitar. To the right of the video is a metadata table:

Mailak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Kantuak eta jolasak

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Abesti tradizionala esanda, zer datorkizue burura? Zer da tradizioa?
- Zein dira ezagutzen dituzuen abesti tradizionalak?
- Noizkoak dira? Nork sortu zituen? Nola iritsi dira aurreanaino?

Kanta tradizionalak antzinakoak izan ohi dira normalean, gehienetan ez dakigu nork sortu zituen (egile jakinik ez dute) eta ahoz aho transmititu izan dira. Hori bai, badira



'klasiko' bihurtu diren euskal kantak ere, batzuek kanta tradizionaltzat hartzen dituztenak, egile jakinekoak eta nahiko berriak direnak (adibidez, *Txoria txori*).

Ikasleek proposatutako abesti tradizionalen bat abestuko dugu.

### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Deigarri egin zaizkien pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, "traza" (itxura, antza), "biyamonian" (biharamunean), "trukian" (karta-joko bat da truk), "txota" (*sota*, karta-jokoko figura), "txaldun" (zaldiaren karta)... Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia ulertu arte.



### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu.

- Ezagutzen zenituzten bideoko abestiak?
- Gustatu al zaizkizue? Zergatik?
- Zer hizkera darabilte?
- Erreparatu hiru hitzunei. Adina, jarrera... Zein da abesti erakargarriena? Zergatik?

3. Abestiak sakonxeago aztertuko ditugu guztion artean.

- a) **Markesaren alaba.** Abestia oso luzea da. 21 bertso ditu guztira, nahiz eta bideoan sei bakarrik datozen. Letra banatu ([osorik](#)), eta irakurri egingo dugu (guztion artean, bakoitzak bertso bat), eta esaten duena ulertu.

- Nork asmatu zituen bertso horiek? Noizkoak dira edo noizkoak ematen dute?
- Zer kontatzen du abestiak? Zuen ustez, benetan gertatu ote zen?

Amaia Zubiria eta Txomin Artolaren [bertsioa](#) eta Oskorri [taldearena](#) ere entzun ditzakegu. Ondoren, abestia kanta dezakegu.

- b) **Maritxu nora zoaz.** Abestiaren bigarren zatia ez da oso ezaguna. Lehenengo zatia, berriz, aski ezaguna. [Bideo hau](#) ikus daiteke, eta ondoren bideoko bertso luzea (pikantea) kantatu.
- c) **Herriko festak.** Karta jokoan ari diren lau emakumeei buruzko kantaren letra banatu (ikus "Testua" atalean), eta irakurri egingo dugu. Kanta umoretsua eta alaia da, genero ikuspegitik ere mamirik baduena:

- Edanean eta jolasean ari direla, emakumeetako bati begiak nahi gabe keinu egiten dio. Ondo ikusita al zegoen emakumeek edatea?
- Hiru neskazahar eta alargun bat dira. Datu hori esanguratsua al da?

Gaian sakontzeko, aukera bat: [Emakumeak eta aisia](#) bideoa ikustea.

**4. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide:

- *"Za zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari edo ondare biltzaile bihurtuko dira, eta kanta eta kanta-jolas tradizionalak bilduko dituzte herrian (adibiderako, ikus "Testuingurua" ataleko bideoak). Bi-hiru ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta. Elkarrizketa bideoan egitea gomendatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)), gero ikasgelan ikusi ahal izateko, eta ondo legoke elkarrizketatuari argazkia ere ateratzea. Ikasleek aurkezpen txiki bat prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakustearekin batera ikaskideei azalpenak emateko. Bilketa lana beraien kabuz egingo dute, eskola orduetatik kanpo; lanketa, berriz, ikastetxean.

Jasotakoarekin, hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Hona hemen bi aukera:

- a. Grabazio guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoa(k) prestatzea, sare sozialen bidez ikastetxean zein herrian zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie). Adibidez, kanta tradizionalen eta kanta-jolasen bilduma. Posible da irakasleek horiek HHko eta LHko ikasleekin lantzea ere ("Testuingurua" ataleko bideoetan bezala).
  - b. Bildutako kanta idatziz jarri, eta herriko kanten liburuxka bat sortzea. Beste gela batzuetan banatu, eta egun batean kanta saioa antola daiteke ikastetxean.
- *"Bestearen azalean"*. Bertso-antzezlanak egingo ditugu *Markesaren alaba* abestiarekin, taldeka jarrita (hiru talde handi egin daitezke). Guztien artean bertsoak ikasi, eta antzezlantxoak egingo dituzte. Ikasleek erabakiko dute paperak nola banatu. Pertsonaiak: narratzailea(k), Juanita (Markesaren alaba), Antonio (marinela) eta Juanitaren ama. Nahi izanez gero, mozorrotuta egin dezakete. Adibiderako ikus Kurtzebarri ikastetxeko haurrek (LHko 3. eta 4. mailak) egin zuten [bertso-antzerkia](#). *Markesaren alaba* kanta 21 bertso ditu, baina 16 bertso ikasi zituzten (bizienak eta adierazgarrienak).

Beste aukera bat: abestia [osorik](#) aztertu, eta zortzi-hamar bertso aukeratzea; hori bai, garrantzitsua da istorioak zentzurik ez galtzea.

- *"Sormena lagun."* Bideoko abestiak moldatu eta eguneratu egingo ditugu. Horretarako, lehenengo beste abesti batzuk entzun eta komenta ditzakegu:

→ Sorotan Bele taldearen [Marinelaren zain](#) abestia entzungo dugu, eta *Markesaren alaba* abestiarekin parekatu (dantzagarriagoa da, laburragoa, erakargarriagoa...).

→ *Maritxu, nora zoaz?* Drindots taldearen [bertsioa](#) eta Kortaturen [bertsioa](#) entzungo ditugu, ea zer iruditzen zaizkien.

Taldeka jarri, eta abesti berriak sortuko ditugu. Talde guztiek bina abesti sortuko dituzte (beraiek erabakiko dute lanak nola banatu): Markesaren alabaren historia eta Maritxuren ibilerak. Maritxuren abestian, adibidez, beste pare bat bertso asma ditzakete, kantaren jarraipen modura. Doinua eta musika estiloa aldatzea ere posible da (rapa edo hip-hopa ere izan daiteke...).

Abestiak ikaskideen aurrean kantatuko dituzte, egindakoa partekatzeko.

- *"Sormena lagun."* Abesti berriak sortuko ditugu, taldeka, *Herriko festak* abestiaren doinuarekin, baina gai librean. Hau da, talde bakoitzak erabakiko du zeri buruz kantatu nahi duen. Prest daudenean, ikaskideen aurrean kantatuko dituzte bertsiu guztiak, txandaka.

Gero, beraiek aukeratutako beste abesti batzuekin egin daiteke gauza bera (beste hizkuntza batzuetakoak ere izan daitezke, baina gero euskaraz kantatu). Aukera bat: bideo txiki bat prestatzea abestiarekin (grabatutako irudiekin, marrazkiekin, argazkiekin...).

Adibiderako, ikus: MP5 taldearen [Bizikletia kandau](#), Zesuma taldearen [Bass-herritar bat Madrilen](#) eta [Maria Jesus](#), Ingoaldeu taldearen [Buelta bat eta etxera](#) eta [Rosa Rosa](#), Mister Euskaldunen [Txuleta saqardo](#).

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ikasleek beti ahozko aurkezpena/erakustaldia egitea proposatzen dugu, ahozkotasuna lantzeko, eta ahal dela bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusi eta aztertu ahal izateko.

**7. Gai:** Hitanoaren erabilera. Euskara lagunartean.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/hitanoaren-erabilera>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. Below the header, there are navigation buttons: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main content area is titled 'Hitanoaren erabilera' and includes a video player showing two people talking. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

- Maitak:** DBH
- Proiektua:** Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Euskara eta literatura
- Gaiak:** Euskara

Below the metadata box, there are five yellow stars indicating a rating.

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- *Badakizue hika/hitanoz hitz egiten?*
- *Zer dira toka eta noka? Norekin hitz egin daiteke hika eta norekin ez?*

2. Ikasleek hitanoarekin izan duten esperientzia kontatuko dute: ea sekula entzun duten, etxean entzun izan duten, inork hitz egiten dien hika, erabiltzen duten... Hitanoari buruz dakitena arbelean (digitala izan daiteke) idazten joan daitezke: hitanoaren arauak (norekin eta nola erabili) eta esaldi erabilienak hika.

Norekin egin daiteke hika? (BAI/EZ)	Nola egin daiteke hika? (TOKA/NOKA)	Esaldi/esamolde erabilienak idatzi
Lagunek guri	Mutilak mutilari	
Guk lagunei	Neskak neskari	
Anai-arrebek guri	Mutilak neskari	
Guk anai-arrebei	Neskak mutilari	
Gurasoek/aitona-amonek guri		
Guk gurasoei/aitona-amonei		
Irakasleek guri		
Guk irakasleei		
Gazteagoek guri		
Guk gazteagoei		
Zaharragoek guri		
Guk zaharragoei		



### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleek euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioa guztia barneratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Zer iruditu zaizue bideoan diotena? Eman iritzia.
- Zuen ustez, zerk eragin du hitanoaren erabilera hainbeste jaitea? Zuen inguruan zer jarrera ikusten duzue? (Familia, lagunak)
- Lagunartean hika egitea erakargarria zaizue? Lagunarteko erregistro bezala baliagarria da?
- Zer iruditzen zaizue eskolan hika lantzea?

3. Ikasleek aurrez hitanoa lantzeko aukera izan baldin badute, jolas bat egin daiteke. Ikaskideek elkarri pilota bat pasatuko diote. Horretarako, onena denak zutik eta borobilean jartzea izango da. Pilota duenak esaldi bat esango du, nahi duena (barregarria baldin bada, hobeto), eta pilota ikaskide bati botako dio. Hark esaldi hori hitanoz esango du (pilota botako dion hurrengoari zuzenduta; hura neska edo mutila den kontuan izanda). Kate bat osatuko dute hala.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Sei adibide (ikasleek aukera dezakete, eta baita ordezkoko beste ekoizpenen bat proposatu ere):

- *"Sormena lagun"*. Hitzekin jolasteko, piropo-lehiaketa antolatu. Mezuek hitanoz izan behar dute. Lehiaketan banaka edo bikoteka har daiteke parte. Balioetsiko diren ezaugarriak: umorea erabiltzea, esamolde jatorrak erabiltzea eta ukitu poetikoa izatea (metaforak erabiltzea). Ez da piropo iraingarri eta sexistarik onartuko. Ikasleek beraiek erabakiko dute irabazlea nor den (epaimahaia osatu), eta baita saririk izango den ala ez (eta izatekotan, zer). Leloren bat gustatuz gero, logoa diseinatu eta pegatinak edo kamisetak egin ditzakete. Lehiaketako piropo onenak koloretako kartoi-meheetan idatzi eta ikastetxeko pasalekuetan jar ditzakete.
- *"Jolasten"*. Ikasleek eskuko telefonoarekin euren burua grabatuko dute, hitanoz hizketan. Ikasle bakoitzak beste bat aukeratu beharko du, eta

mezua hari zuzendu (gutxienez esaldi bat, toka edo noka). Katea osatuko dute hala. Adibidez: “Hi, Amaia, lagun ona haiz!”. Grabazioak partekatzeko, Facebook-en orri bat zabal daiteke (Adibiderako, ikus Urretxun festei begira egin zuten [“Ipini pina” katea](#); “Hi!” pina ere sor daiteke).

- *“Testigantza bila”*. Binaka egiteko moduko lana: bikote bakoitzak hitanoz kontatutako testigantza bat aukeratuko du, eta aztertu. Minutu bat transkribatu, eta hitanoari erreparatu: aditzak identifikatu, toka ala noka ari diren... Norbere herriko testigantzak topatzen saiatuko gara [ahotsak.eus](#) webgunean edo beste toki batzuetan, eta bestela, eskualdekoa, ahalik eta gertukoena izan dadin. Hona hemen ahotsak.eus webgunean jasotako adibide batzuk: [Oñati-Bergara](#), [Lizartza](#) eta [Oiartzun](#).

- *“Gaur egunera begira”*. Hitanoaren gaur egungo erabilerari buruz hausnartuko dugu, orain arteko ibilbideari begiratzearekin batera. Ohitura aldatu egiten dira, bizimoduarekin batera. Hitanoa mantentzea gero eta zailagoa denez, arauak malgutzea ondo ikusten dute batzuek. [Bideo hau](#) ikusi ondoren, eztabaida egingo dute ikasleek, bi taldetan banatuta. Batzuk ohitura aldatu eta berritzearen alde egongo dira: nagusiagoei hika hitz egitea ez dute begi txarrez ikusiko. Besteek, ordea, nahiago izango dute tradizioa bere horretan mantentzea. Eztabaidaren aurretik, ikasleak girotzeko eta nork bere iritzia eraikitzen laguntzeko, “Testuingurua” ataleko “Ohitura aldaketak euskarazko tratamenduetan” ataleko adibideak eta bideoak aipatu eta ikus daitezke gelan.

- *“Eman iritzia”*. Hitanoa oso gutxi erabiltzen da hedabideetan. Ikus [Azpimarra saioaren](#) zatitxo bat (lehen bost minutuak). Bilatu adibide gehiago komunikabideetan (irratian, prentsan, telebistan; marrazki bizidunetan... Hitanoari buruzko erreportajeak ere izan daitezke). Banaka edo binaka egin daiteke lan hau. Bikote bakoitzak adibide bat topatu beharko du, eta gelara eraman. Aurkezpena egingo dute ikaskideen aurrean: adibidea erakutsi eta iritzia eman.

- *“Zu zeu elkarrizketatzaile”*. Hitanoa erabiltzeko ohitura duen pertsona bat elkarrizketatuko dute ikasleek (binaka edo hiruak). Elkarrizketa egin aurretik, galdetegia prestatuko dute denen artean (elkarrizketatua ikasleak baino nagusiagoa izango denez, zuka). Elkarrizketa hitanoari buruz eta hitanoz izatea litzateke onena. Bideokamerarekin edo poltsikoko



telefonoarekin grabatzea komeni da, gero grabatutakoa ikaskideekin partekatzeko. Ikus elkarrizketak egiteko [jarraibide orokorrak](#). Elkarrizketatuaren oinarrizko datuak jasotzea ere komeni da (jaioteguna, biografia laburra...), eta argazki bat ateratzea, gero aurkezpenean erabiltzeko.

- 5. Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei beraien lanaren emaitzak ezagutarazteko. Aurkezpenak laburrak izango dira eta ondo legoke bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkiok: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

**8. Gai:** Hizkera informala: irainak. Euskara lagunartean.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/hizkera-informala-irainak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation menu (Sarrera, Honi buruz, Gaiak, Bideoteka). The main content area is titled 'Hizkera informala: irainak' and includes a video player with a play button. The video features two speakers: Andere Arriolabengoa Aramaio, 1982 and Manex Agirre Aramaio, 1982. To the right of the video is a metadata table:

Mailak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Euskara

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Irainik eta biraorik erabiltzen al duzue zuek? Zer egoeratan?
- Irain gogorrak eta epelak daude: indar handia dutenak eta indar gutxiak. Zein izan daiteke irain epel bat? Adibiderik?
- Batzuek esaten dute euskarak ez duela irainik... Zergatik diote hori?
- Zein hizkuntzatan esaten dituzue irain eta biraok zuek?

2. Ikasle bakoitzak euskarazko irain ala birao bat idatziko du papertxo batean, inori esan eta erakutsi gabe, eta papertxo guztiak poltsa edo zaku batean sartuko ditugu.

Ondoren, bi ikaslek (boluntarioak eskatu) arbelean idatziko dituzte hitz guztiak. Arbelean termometro bat marraztuko dute, eta irainak goian, erdialdean ala behean idazten joango dira gero, hitzen indarraren arabera: irain 'epelenak' termometroaren behekaldean jarriko dituzte, erdibidekoak erdi inguruan eta gogorrenak (haserrearen haserrez sutan, bero-bero, jartzeko modukoak direnak) goikaldean. Errepikatzen diren hitzei marrazkoak jarriko dizkiete (adibidez, buruhandi II).

Ikasleei gehiago bururatzen baldin bazaizkie, horiek ere apuntatu. Beste aukera bat: arbelean idatzi beharrean, termometroa A3 tamainako kartoi-mehe batean marraztea, eta papertxoak ere han jartzen joatea, blu-tack txiklearekin.



### **Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Ikasleen arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez: “hitz larriak” (Iparraldean irainei hala esaten zaie), “jun zingan” edo “jun zakutik hartzen” (Lekeitioko esamoldeak. Esanahia: joan popatik hartzera, joan pikutara, joan haizea hartzera, alde hemendik)...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko. Bideoa bigarren edo hirugarren aldiz ikustean, irain guztiak apuntatuko dituzte, gero horiek ere termometroan jartzeko.

### **Bideoa ikusi ondoren**

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoko euskarazko biraoak gure termometroan jarriko ditugu, besteekin batera.
3. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

- Zergatik jotzen dugu gaztelaniara hizkera informala darabilgunean? Zein egoeratan gertatzen da, haserretzen garenean bereziki ala bestela ere bai?
- Bideoan agertu al da ezagutzen ez zenuten esamolderik?
- Euskarazko irain nahikoa ezagutzen al dugu? Non entzun ditzakegu?
- Euskarazko irainek ba al dute aski indar?
- Iparraldean gaztelaniazko irainak erabiltzen dituzte; hegoaldean gauza bera gertatzen al da frantsesezkoekin?
- Esamoldeak modan jar daitezke? Ados al zaudete?
- Zer iruditzen zaizue irainak asmatzea?

4. Josu Mendikute blogariak “irainak sortzeko metodo erraz bat” proposatzen du [bere blogean](#): hiru zutabeen metodoa, hain zuzen ere. Ikasleak 4-5 laguneko taldeetan banatuta, jolas bat egingo dugu: metodo hori erabilia, irainak asmatuko ditugu.

1. Lehen zutabeen, animalia desatseginen izenak.
2. Bigarrenetan, adjektibo iraingarriak.
3. Hirugarrenean, indargarri bat (halakoa, alena, madarikatua... edo beste adjektibo iraingarri bat).

Adibidea: zerri gezurti madarikatua

10 minutu izango dituzte, eta ondoren asmatutakoak partekatu egingo ditugu. Originalenak eta barregarrienak zein diren erabakiko da, denen artean.

Irainak eta esamoldeak asmatzeko beste modu batzuk ere badaude. Adibidez, konparazioak erabiltzea: “X baino makalagoa da”; adjektibo bati “mari” indargarria ipintzea: “mari-zikin”, “zikin-mari”...

5. Orain irainak albo batera utziko ditugu. Izan ere, gure helburua ez da denok biraoka aritzea. Hizkera informala, kaleko hizkera, gazte-hizkera... hizkera bizia dela eta egoera guztietarako balio duela konturatzea da gure asmoa: zirikatzeko, barre egiteko, ligatzeko... ez haserre gaudenerako bakarrik. Hizkera informalarri buruz hausnartuko dugu. Horretarako, irakaslearentzat gomendagarriak izan daitezke honakoak: gazte-hizkerari buruzko Kike Amonarrizen [artikulu hau](#) (eta [hitzaldia](#)) eta Joserra Gartziak [egokitasunari buruz dioena](#) (04:55-08:40).



- *Zer da hizkera informala? Zertan desberdintzen da formaletik? Zer ezaugarri ditu?*
- *Komunikazio egoerak baldintzatzen al du gure jarduna? Zeren arabera da egokia esaten duguna?*
- *Ligatzeko, adibidez, zer esamolde erabiltzen ditugu? Mutil edo neska ederra dela esateko zer hitz edo esamolde ezagutzen dituzue? “Zu bai neska panpoxa/pertxenta” egokia izango al litzateke (egoera zehatz bat irudikatu)?*

Aukera bat: Wazemank taldearen [bideo hau](#) ikustea eta komentatzea; hizkera formalaren eta informalaren arteko mugak umorez lantzen dira bertan.

Laupabost laguneko hainbat taldetan banatuta jarraituko dugu. Orain, Gazte Gara Gazte webguneko [gazte-hiztegia](#) agertzen diren hitz eta esamoldeak begiratuko dituzte ikasleek. Barregarriak edo politak iruditzen zaizkien esamoldeak aukeratuko dituzte, erabiltzeko modukoak iruditzen zaizkienak. Talde bakoitzak 3 aukeratuko ditu.

Ikasgelan partekatuko dituzte. Arbelean idatziko dituzte denak. Gero, talde bakoitzak esamolde bakar bat aukeratuko du, gehien gustatzen zaiona, eta erabiltzeko konpromisoa hartu, gutxienez hilabetean. Eskolatik kanpo ere bai: lagunekin, kalean... Esperimentu bat izango da. Ea egia den esamoldeak modan jar daitezkeela!

6. Lehiaketa bat antolatuko dugu. Irudimenari ateak irekiko dizkiogu. Pegatina batean jartzeko leloa izango da, herri-hizkeran idatzia. Esaldi barregarri edo original bat (ez da iraingarria izango). Gaia: euskara, ligatzea... denen artean erabakiko da. Errima erabiltzea lagungarria gerta daiteke (adibide bat: “Libre nau ta espabilau!”). Esamolderen bat erabiliz gero esaldiak indar handiagoa izan dezake. Diseinua ere inportantea izango da (marrazkiren bat, koloreak...). Epe bat emango dugu lanak entregatzeko. Epaimahaia: bozka bidez erabakiko da irabazlea nor den, gelan bertan (nahi izanez gero, beste gela batzuetakoek ere parte har dezakete).  
Nahi duenak parte har dezake, hautazkoa da (hori bai, nota altxatzeko balio dezake).

7. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Lau adibide:

- *“Zu zea elkarrizketatzaile”*. Herrian zein inguruko herrietan erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak bildu, kalean zein etxean. Helburua: modu informalean erabiltzeko moduko hitzak eta esamoldeak ezagutzea eta berrerabiltzea (ez dute irainak izan beharrik). Lehenengo, galdetegi txiki bat prestatuko dute. Inguru ez baldin bada euskalduna, [gazte-hiztegira](#), sareko beste hitz zerrenda batzuetara eta liburuetara jo dezakete, esamolde politen bila. Bildutako hitz eta esamoldeekin hainbat gauza egin ditzakete. Hona hemen hiru aukera (talde bakoitzak nahi duena aukera dezake edo denek bera):
  - a. Marrazkiak egin, eta liburuxka bat sortzea, kopiak egin eta gero gazteen artean banatzeko modukoa. ‘Hiztegi’ txiki informal bat izango da. Taldea banatu, eta guztien artean osa dezakete liburuxka hori. Adibide polita: [Beasaindio. Beasaingo esamoldeak](#) liburuxka.
  - b. Gustuko hitz eta esamoldeekin esaldi erakargarriak sortu, eta ikastetxeko hormetan jartzea (adibidez, komunetan). Egindakoa dokumentatu egin beharko dute: argazkiak edo bideoa erabilita, eta gelakideen aurrean azaldu. Adibidez, ikasle bakoitzak esamolde edo hitz jakin bati buruzko azalpenak eman ditzake: nori eta non jaso dioten, zergatik gustatu zaien, zer egoeratan erabil daitekeen eta zergatik jarri duten leku zehatz horretan.
  - c. Hitzak eta esamoldeak bideoz jaso (elkarrizketak egin aurretik, ikus [jarraibide orokorrak](#)), eta guztiekin bideo labur bat egitea (edizio programarik ezagutzen ez badute, erakutsi). Argazkiak, marrazkiak eta musika ere sar ditzakete. Girotzeko, ikus [Ondarruko berbak](#) bideoa.

- **"Bestearen azalean".** Lau-bost ikasleko taldeetan umorezko antzezlan laburrak (*esketchak*) prestatu. 2-5 minutu bitartekoak. Txiste/anedkoda modukoak izango dira. Hizkera informala erabiliko dute pertsonaia guztiek, kaleko hizkera. Egoera/gaia beraiek asmatu dezakete (adibidez, ligatzeko metodoak); beste aukera bat: aurretik aukeratutako esamoldeak erabiltzea, talde bakoitzak bereak. Talde bakoitzak bere erara egingo du. Ondoren, lanak gelan bertan antzeztuko dituzte talde guztiek, gelakideen aurrean.  
Beste aukera bat: bideo labur bat grabatzea (horretarako, bideoak egiteko azalpenak emango zaizkie; girotzeko, Wazemank taldearen [bideo hau](#) ikus daiteke).
- **"Jolasten".** Ikasleak 4-5 laguneko taldeetan banatuko dira. Talde bakoitzak 5 hitz edo esamolde aukeratuko ditu, erdi isilpean. Aurrez ezagutzen ez zituztenak izango dira, bitxiak ([Gazte-hiztegia](#)n bila ditzakete), helburua hauxe baita: beste taldeetakoek erraz asmatzeko modukoak ez izatea. Papertxoetan idatziko dituzte, eta tolestu. Talde guztietakoek gauza bera egingo dute. **Nola jolastu?**

- 1. A taldeak idatzitako papertxoak hurrengo taldeak hartuko ditu (B taldeak); gauza bera egingo dute talde guztiek.
  - 2. B taldeko kide batek papertxo bat hartuko du. Taldekideei erakutsiko die: beraien artean komentatu (isilka) eta, hitz/esamolde horrek zer esan nahi duen baldin badakite, esan egingo dute (A taldekoak izango dira epaileak, beraiek idatzitako papertxoak direlako). Hori bai, aukera bakarra dute. Ez badute asmatzen, hurrengo taldeko kideek (D) izango dute asmatzeko aukera; haiei pasatuko diete papertxoa. Asmatzen duen taldeak puntu 1 lortuko du.
  - 3. Talde bakar batek ere ez badu asmatu, papertxo hori idatzi duten taldeko kideek keinu bidez azaldu beharko dute hitzaren/esamoldearen esanahia. Beste talde guztietako kideek izango dute asmatzeko aukera. Asmatzen duen taldeak puntu 1 lortuko du; keinuka aritu den taldeak 3 puntu (inork asmatzen ez badu, berriz, 2 puntu).
  - 4. Ondoren, D taldekoen txanda izango da, B taldekoen papertxoekin. Eta horrela txandaka, papertxo guztiak erabili arte. Jolasaren bukaeran puntu gehien dituen taldeak irabaziko du. Eta, bide batez, hitz eta esamolde mordoxka ikasteko aukera izango dute. Gainera, gorputz espresioa landuko dute.
- *"Jobasten"*. 2-3 pertsonako taldeak osatuko dituzte. Talde bakoitzak horma-irudi bana egingo du. A-3 tamainako koloretako kartoi-meheak erabil ditzakete. [Gazte-hiztegiko](#) hitzak eta esamoldeak erabiliko dituzte, bi atal hauetakoak: "Amodioa eta sexua" eta "Ezaugarri fisikoekin lotutakoak". Umorerako aukera gehien ematen dutenak aukeratuko dituzte, eta marrazkiak egingo dituzte horiek ilustratzeko. Taldeka, horma-irudiak osatu ondoren, ikaskideei erakutsiko dizkiete, azalpenak emanez. Bukaeran ikastetxeko hormetan jar ditzakete lanak.
8. **ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei beraien lanaren emaitzak ezagutarazteko edo hizkera informalarri buruzko iritzia emateko. Aurkezpen guztiak hizkera informalean egingo dira (herri-hizkeran edo euskakian) eta ondo legoke giroa ere informal samarra izatea, lagun



artekoa. Hori nola lortu? Hasteko, ez dugu “aurkezpen” hitza erabiliko. Adibidez, “Egin duzuenaz azaldu” edo “Egin ditugun gauzak egin ondoren, zer iritzi duzu euskara informalaririk buruz?”. Biribilean jarrita egin daiteke (lurrean eserita, adibidez), hizlari-entzule banaketarik egon ez dadin. Ikaskideei modu naturalean parte hartzeko aukera emango zaie (galderak, iritziak...).

**9. Gai:** Euskara batua eta euskalkiak. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskara-batua-eta-euskalkiak>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful grid background. The main navigation menu includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The 'Gaiak' menu item is highlighted. The main content area is titled 'Euskara batua eta euskalkiak' and contains a paragraph of text. Below the text is a video player showing a woman speaking. A blue arrow points to the video player. To the right of the video player is a metadata box with the following information:

Mailak:	DBH
Proiektua:	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
Ikasgaiak:	Euskara eta literatura
Gaiak:	Euskara

## Proposamen pedagogikoa

### Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer iritzi duzue euskara batuari buruz?
- Noizkoa da batua? Zergatik eta nola sortu zuten?
- Batua sortu zutenean, eztabaida handiak izan ziren. Badaukazue horren berri? Zein ziren eztabaidagaiak?
- Zuen ustez, batuak eragiten al die euskalkiei? Zer harreman dago batuaren eta euskalkien artean?

### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Deigarri gertatu zaizkien pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, “nehor” (inor), “aditu” (ulertu), *Xabierto* gerra aurreko euskarazko ikasliburu bat zela, Aita Laffite eta Koldo Mitxelena nor ziren...

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio behar bezala barneratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

- Adinekoak normalean ez daude euskaraz alfabetatuta. Ezagunak egin al zaizkizue entzun dituzuen iritziak?
- Euskara batua sortu aurretik, ba al zegoen euskarazko liburu eta egunkaririk? Nola idazten zuten?
- Sasoi batean asko izan ziren euskara batuaren kontrakoak. Ezagutzen zenuten H-ari buruzko eztabaida? Zer iruditzen zaizue? Zergatik zeuden batuaren kontra?
- Gaur egungo ikuspegitik, eta zailtasunak ezagututa, nola ikusten duzue batua?

3. Bi belaunaldiren iritziak entzun ditugu, gerra aurretik eta ondoren jaiotakoena. Gaur egun ikuspegia beste bat da. Inork gutxi jartzen ditu zalantzan euskara

batuaren beharra eta balioa. Eta euskalkiak mantendu behar direla ere gehien-gehienek diote. Hori bai, nola egiten da hori? Kontrapuntu moduan, entzun dezagun gazte hauek diotena: [Euskalkiak hezkuntzan](#) (00:15-01:10), [Umeei batuan eta euskalkian](#) (01:05 arte) eta [Euskalkiak komunikabideetan](#).

- Euskalkiak eta euskara batua bateragarriak direla diote gehienek, elkar elikatzen dutela. Zer iruditzen zaizue?
- Noiz erabili behar da batua eta noiz euskalkiak? Hezkuntzan, hedabideetan... mugak argi al daude?
- Euskara informala herriko hizkeran eta formala batuan? Gai al zarete euskalkian eskutitz bat idazteko? Zer nolako euskara darabilzue sakelako mezuetan eta sare sozialetan?

**4. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide (ikasleek aukeratu dezakete, eta baita ordeko beste ekoizpenen bat proposatu ere; posible da bat baino gehiago egitea):

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleak kazetari bihurtuko dira, 2-3 pertsonako taldeak osatuta (zozketa bidez erabaki daiteke). Herritarrek euskara batuari eta euskalkiei buruz zer iritzi duten jakitea izango da helburua. Herriko adinekoek zein gazteek. Lehenengo, galdetegi txiki bat prestatuko dute denek elkarrekin, talde guztiek gauza bera galdetzeko. Elkarrizketak bidez egitea komeni da, gero ikaskideekin partekatuzko. Grabazioaz gainera, elkarrizketatuaren datu batzuk ere jasoko ditugu: izen-abizenak, jaioteguna, biografia laburra. Elkarrizketak egin aurretik, [jarraibide orokor batzuk](#) ematea ere komeni da. Lana egindakoan, talde bakoitzeko kideek aurkezpen txiki bat egingo dute, grabazioa erakustearekin batera, prozesua azaltzeko. Aukera bat: jasotako testigantza guztiekin ikus-entzunezko bat prestatzea, gero herrian ezagutarazteko. Argazkiak, marrazkiak eta musika ere sar ditzakete (horretarako, ikasleei bideoak editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko zaie, eta ereduak eman).
- *"Historia egiten"*. Lau-bost ikasleko taldeetan banatu, eta ikerketa txikiak

egingo dituzte. Esanguratsua den artikulua, dokumentu, elkarrizketa edo bideoen bat/batzuk aukeratu, laburtu, eta ikaskideei azaltzea izango da egitekoa. Horretarako, aurkezpen txiki bat prestatuko dute. Talde bakoitzak bere erara egingo du, eredu jakin bat jarraitu gabe (teknologia berriak erabil ditzakete, aurkezpenak egiteko programaren bat, horma-irudiak, argazkiak...). Aukeratutako dokumentuak ere oso desberdinak izan daitezke.

Hauek izan daitezke aztertzeko moduko gai batzuk, guztion artean euskararen historia hobeto ezagutzeko:

- Euskara batua eta euskalkiak eztabaida
- Euskaltzaindia eta euskara batuaren sorrera
- Euskarazko testuen idazkera (XVI. mendetik hona)
- Euskalkien erabilera hezkuntzan eta komunikabideetan

- *"Bestearen azalean"*. 4-5 laguneko taldeak osatu, eta antzezlanak egingo ditugu, rol jolasak. Rol eta lanbide ugari jarriko ditugu poltsa/zaku batean, papertxoetan idatzita:

Telebista aurkezlea, dendaria, enpresaburua,  
medikua, eskalatzailea, bertsolaria, poeta,  
rock abeslaria, erretiratua, ume bihurria,  
gurasoa, gazte makarra, igeltseroa, amona,  
baserritarra...

Guztion artean erabaki rolak. Horretarako, erabiliko dugun hizkeraren inguruan ere hausnartuko dugu: ***Egoeraren eta pertsonaiaren arabera, hizkera ere***

**aldatu egiten al da?**

Ikasle bakoitzak papertxo bat hartuko du, eta talde bakoitzak antzezlan labur bat (esketx bat) prestatuko du, egokitutako pertsonaien arabera. Antzezlan prest dutenean, ikaskideen aurrean antzeztuko dute. Pertsonaiak karakterizatzeko, mozorroak edo objektu txikiak erabil ditzakete (bibotea marraztu, zapi bat edo kapela bat jantzi...).

Antzezlan bakoitzaren ostean, iritziak trukatzeko eta antzeztutako pertsonaien jarrerari eta hizkerari buruz hitz egiteko tarte hartuko dugu, elkar aberasteko. Kaleko hizkeran edo hizkera informalean euskaraz egiteko zailtasunak antzemanaz gero, aukera bat: Hizkera informala: irainak bideoa eta proposamenak lantzea.

- *"Iritzia eman".* Euskara eta ni. Euskararekin duten harremana kontatuko dute ikasleek, sentimenduen ikuspegitik. Ez dute ezer idatzi beharko. Beraien sentipenak ahoz azalduko dizkiete ikaskideei, eta bat-bateko jarduna izango da, neurri handi batean. Giro informala lortzeko, lurrean eserita egin dezakegu, biribilean jarrita. Banaka hitz egingo dute ikasleek, txandaka, euskararekin eta gainerako hizkuntzekin izan duten esperientzia kontatzeko (biribilean eseritako hurrenkeran egin dezakete). Aukera bat: irakaslea ikasleei galderak egiten joatea, hitz eginarazteko. Beste aukera bat: galderak edo puntuak arbelean jartzea, hala ikasleek gida bat izan dezaten. Pentsarazteko eta hitz eginarazteko, galdera hauek erabil ditzakegu:

-Noiztik dakizu euskaraz? Nola ikasi zenuen?

-Familia. Gurasoak nongoak dituzu? Zer hizkuntza hitz egiten dute?

-Euskalkiak. Zer harreman duzu euskalkiekin (gertukoak zein urrutikoak)?

-Batua. Zer harreman duzu batuarekin?

-Beste hizkuntzak. Beste zein hizkuntza dakizkizu? Joerarik bai erdarara jotzeko? Noiz? Norekin?

-Euskara. Zer da euskara zuretzat (inposatutako hizkuntza, eskolako hizkuntza, etxekoa, maitea...)?

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena/azalpena/antzezlanak egingo dituzten ikasleek, gelakideei beraien lanaren emaitzak ezagutarazteko. Horiek bidez grabatzea interesgarria izan daiteke, irakasleak ez ezik ikasleek beraien ere baloratu ahal izateko. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Horretarako, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).



**10. Gai:** Mendebaldeko euskara. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/mendebaldeko-euskara>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful grid background. The navigation menu includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main heading is 'Mendebaldeko euskara'. Below it, there is a video player showing two women talking. To the right of the video is a metadata box with the following information: 'Proiektua: Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan', 'Ikasgaiak: Euskara eta literatura', and 'Gaiak: Euskara'. The video player has a play button and a blue arrow pointing to it. The metadata box has a star rating of 4 out of 5.

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Mendebaldeko euskara. Bizkaiera izenez ezagunagoa. Non hitz egiten da (Bizkaia, Araba, Gipuzkoa)?
- Ba al zenekiten hitzun gehien eta hedadura zabalena duen euskalkia dela?
- Zer iritzí duzue bizkaierari buruz (ulerterraza/ulertzeko zaila, polita/itsusia...)?
- Jarri adibide bat bizkaieraz: esaldi bat edo hitz batzuk esan. Zein dira ezaugarri nabarmenenak, zuen ustez? Gai zarete bizkaiera imitatzeko (bizkaieraz hitz egiten ez duten ikasleentzat)? Saia zaitezte!



### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen. Bideoak hiru zati ditu; osorik ikusiko dugu, eta zatika ere bai ondoren.
2. Euren arreta erakarri duten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, “berba” (hitza), “gatxa” (zaila), “barixakua” (ostirala), “egueztena” (asteazkena), “eguen” (osteguna), “beroideki” (beroiei, haiei), “amuma” (amona), “txarto” (gaizki), “giputzak” (gipuzkoarrak)...



Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioa behar bezala barneratzen.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

- *Gustatu al zaizue bideoa? Zatiaren bat besteak baino gehiago? Gertuagokoak egiten al zaizkizue gazteen testigantzak besteak baino?*
- *Ulermen arazorik izan al duzue bizkaierazko bi zatietan?*
- *Nongoak dira bizkaieraz hitz egiten dutenak? Berdin hitz egiten al dute denek?*

Atalez atal joan gaitzke gero, pixka bat sakontzeko. “**Adinekoek euskararen egoerari buruz, bizkaieraz**” atalari dagokionez:

- *Euskararen egoerari buruz hitz egiten dute adinekoek: ez zieten euskaraz egiten uzten. Ezaguna egín al zaizue kontatzen dutena?*
- *Ezagutzen al duzue antzeko egoerarik? Kontatu!*

**“Gipuzkoar batzuen iritzia, bizkaierari buruz”** atalaren gainean:

- *Ados al zaudete esaten dutenarekin (bizkaiera ulertzeko zaila dela) ala aurreiritziak eta ohitura falta ikusten dituzue testigantza horietan?*

Bide beretik doan bideo labur hau ere ikus dezakegu, aurreiritziei buruz hausnartzeko:  
[Euskalkiak](#)

**“Gazteen iritzia elkar ulertzeari buruz, bizkaieraz”** atalari buruz:

*Zer nolako harremana duzue beste euskalkí batzuekin? Kontatu zuen esperientziak, elkar ulertzearekin lotuta.*  
*Zuen ustez, batuak zenbat eragiten die euskalkíei? Euskalkiak aldatzen ari dira. Ona ala txarra da hori? Abantaílak eta desabantaílak topatu.*

**“Kataluniatik etorri eta bizkaiera ikasi” atalari buruz:**

- Zer iruditzen zaizue *Jordí Serra* katalanaren erabakia? Euskara irakaslea da orain, Gasteizen.
- *Batuan hitz egiten hasten da... Noiz igarotzen da batetik bizkaierara?*
- *Erraza egiten zaizue erregistroz aldatzea? Berdin hitz egiten al duzue inguruan dituzuen guztiekin?*

**3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide:

- **“Za zea elkarrizketazale”.** Ikasleak kazetari bihurtuko dira, 2-3 pertsonako taldeak osatuta (zozketa bidez erabaki daiteke). Herritarrek herriko euskalkiari eta gainerako euskalkiei buruz zer iritzi duten jakitea izango da helburua (bertako euskalkirik ez badago, euskalkiei buruzko iritzia jaso). Herriko adinekoei zein gazteei galdetu. Lehenengo, galdetegi txiki bat prestatuko dute denek elkarrekin, talde guztiek gauza bera galdetzeko. Elkarrizketak bidez egitea komeni da, gero ikaskideekin partekatzeke, eta argazkia ateratzea ere ondo legoke. Grabazioaz gainera, elkarrizketatuaren datu batzuk ere jasoko ditugu: izen-abizenak, jaioteguna, biografia laburra. Elkarrizketak egin aurretik, [jarraibide orokor batzuk](#) ematea ere komeni da. Lana egindakoan, talde bakoitzeko kideek aurkezpen txiki bat egingo dute, grabazioa erakustearekin batera, prozesua azaltzeko. Aukera bat: jasotako testigantza guztiekin ikus-entzunezko bat prestatzea, gero herrian ezagutarazteko. Argazkiak, marrazkiak eta musika ere sar ditzakete (horretarako, ikasleei bideoak editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsiko zaie, eta ereduak eman).
- **“Hitzen arrastoak”.** Bizkaieraren ezaugarriei erreparatuko diegu orain. Testua banatuko diegu ikasleei (ikus “Testua” atalean), eta mendebaldeko euskaraz dauden ataletan euskalki horren ezaugarriak aztertuko dituzte. Talde txikietan

egingo dute lana, eta ondoren partekatu. Bizkaieraren ezaugarrietako batzuk ikus ditzakegu lehenengo, lana errazteko: [Mendebaldeko euskara](#). Ondoren, taula hau ere baliagarria gerta dakieke:

	Mendebaldeko euskaran	Nola da euskara batuan?
<b>Lexikoa</b>		
<b>Aditza eta morfologia</b>		
<b>Fonetika</b> (bideoa berriz entzun)		
<b>Sintaxia</b>		

- *"Testigantza bila"*. [Ahotsak.eus](#) webgunean testigantza mordoia dauzkagu bizkaieraz. Ikasleek testigantza bana bilatu beharko dute webgunean (banaka edo 2-3 laguneko taldeetan). Nahi duten herrikoa izan daiteke, baina testigantza polita izan dadila, gai interesgarri bati buruzkoa. Transkripzioa daukan bat aukera dezakete, errazagoa gertatzeko.  
Zer egin ondoren? Minutu bat aztertu, eta euskalkiaren ezaugarriak identifikatu (aurreko taula erabil daiteke).  
Ikaskideei egindako lanaren berri emango diete, ahoz. Lehenengo, bideo-pasarte hori zergatik aukeratu duten azalduko dute, gero bideoa ipini, eta identifikatu dituzten ezaugarriak zerrendatuko dituzte.
- 4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak erakusteko. Bideoz grabatzea interesgarria izan daiteke, irakasleak ez ezik ikasleek ere baloratu ahal izateko. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da (ikus [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#)).

**11. Gaia: Zuberera.** Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/zuberera>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. The navigation menu includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Gaiak', and 'Bideoteka'. The main content area is titled 'Zuberera' and contains a video player showing an elderly man speaking. To the right of the video is a metadata box with the following information:

- Materialak: DBH
- Proiektua: Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak: Euskara eta literatura
- Gaiak: Euskara

Below the metadata box are five stars for rating.

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu.

- Zer dakizue zubererari buruz? Ezagutzen eta ulertzen al duzue? Non entzu (te)n duzue?
- Zer iritzi duzue zubererari buruz (ezezaguna, ulertzeko zaila, polita/itsusia...)?
- Ba al dakizue zein den zubereraren egoera (asko hitz egiten den ala gutxi...)?

### Bideoa ikusi bitartean

1. Aurre-ezagutzak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Euren arreta piztu duten pasarteak gogoan hartu.
3. Zuberera seguruenez ez zaienez gertukoa egingo, nahikoa izango da ideia nagusiak ulertzea: zeri buruz ari diren hizketan. Hala ere, ulertu ez dituzten hitzak apunta ditzakete, belarrira jotzen dietenak. Adibidez, “prefosta” (jakina, noski).

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztia barneratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, denok elkarrekin. Hona hemen horretarako balio dezaketen galdera batzuk:

Formari erreparatuko diogu lehenengo.

- *Ahoskerari dagokionez, antzeman al duzue alderik beste euskalkiekin (ü bokalaren erabilera, h aspiratzea...)?*
- *Izan al duzue ulertzeko arazorik? Zein testigantza da errazena ulertzeko? Zergatik?*

Edukiari dagokionez: Iparraldean euskararen egoera zein izan zen eta orain zein den azaltzen dute bideoan. Eskolan zigortu egiten zituzten, euskaraz egiten zutenean. Euskarak Iparraldean ez du ofizialtasunik orain ere, eta eskola gehienetan frantsesa da nagusi. Gaztetxo askok eskolara joandakoan galtzen dute euskara.

- *Ezaguna egiten al zaizue kontatzen dutena?*
- *Alderik ikusten al duzue Hegoaldeko eta Iparraldeko egoeren artean? Eta antzekotasunik?*

**3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Hiru adibide:

- *"Hitzen arrastoak"*. Zubereraren ezaugarriei sakonago erreparatuko diegu orain. Testua banatuko diegu ikasleei (ikus "Testua" atalean), eta zubereraren ezaugarriak aztertuko dituzte. Talde txikietan egingo dute lan, eta, ondoren, ahoz partekatu. Talde bakoitzak idazkaria eta bozeramailea izendatuko ditu. Zubereraren ezaugarrietako batzuk ikus ditzakegu lehenengo (inprimatuta ematea da aukera bat), lana errazteko: zuberera. Ondoren, taula hau ere baliagarri gerta dakieke:



	Zubereraz	Nola da euskara batuan?
<b>Lexikoa</b>		
<b>Aditza eta morfologia</b>		
<b>Fonetika</b> (bideoa berriz entzun)		

- *"Testigantza bila"*. [Ahotsak.eus](http://Ahotsak.eus) webgunean testigantza dezente dauzkagu zubereraz. Ikasleek testigantza bana bilatu beharko dute webgunean (banaka edo 2-3 laguneko taldeetan). Minutu bat azertu, eta euskalkiaren ezaugarriak identifikatuko dituzte (aurreko taula erabil dezakete). Amaitutakoan, ikaskideei egindako lanaren berri emango diete, ahoz. Lehenengo, bideo-pasarte hori zergatik aukeratu duten azalduko dute; gero, bideoa ipini, ikasgelan entzun, eta identifikatu dituzten ezaugarriak zerrendatuko dituzte.

- **"Eman iritzia".** Zuberera da euskara batutik gehien urruntzen den euskalkia. *Iparaldean hitz egiten den beste euskalkia, nafar-lapurtera (Lapurdin eta Behe Nafarroan hitz egiten dena), zubereraren antzekoa ala desberdina da?* Nafar-lapurteraren eta zubereraren arteko aldeez jabetzeko, bideo hauek ikusiko ditugu:
  1. [Euskalkiari eutsi ala moldatu](#) (nafar-lapurteraz)
  2. [Parisko lehenusuekin frantsesez](#) (zubereraz)Behar adina aldiz entzungo ditugu biak, ulertu dutela ziurtatzeko (idea orokorrak bederen). Ondoren, talde txikietan banatuta (2-3 ikasle), bi bideoak sakonago aztertuko dituzte:

- *Nafar-lapurtera errazago ulertzen al da zuberera baino? Zergatik?*
- *Zubereraz dagoen bideoa idatziz jarri (transkripzioa egin).*
- *Batutik desberdinak diren hitzak identifikatu bi bideoetan. Nola esaten dira batuan?*

Emaitzak partekatuko ditugu. Talde bakoitzak bozeramaile bat izendatuko du horretarako.

Ondoren, edukian sakontzeko, bideoetan agertu diren gaiei buruz hausnartuko dugu:

1. Iparalde-Hegoalde harremana
2. Hitz egiteko modua aldatzea, beste batzuekin komunikatzeko
3. Erdarara jotzea, euskaraz ez dakitenekin

Ikasle bakoitzak nahi duen gaia aukeratuko du, eta bere hausnarketa-esperientzia-iritzia partekatuko du, ahoz. Azalpen-aurkezpen laburrak izango dira, nahiko informalak eta inprobisatuak (giro informala lortzeko, biribilean jarrita egin dezakegu, lurrean eserita).

4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpenak bideoz grabatzea interesgarria izan daiteke, irakasleak ez ezik ikasleek beraiek ere baloratu ahal izateko.



**12. Gaiak:** Euskara, integrazio hizkuntza. Euskararen aberastasuna.

Helbidea: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskara-integrazio-hizkuntza>

The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a colorful header. The main content area features a video player with a play button and a woman's face. Below the video is a table with the following information:

<b>Mailak:</b>	DBH
<b>Proiektua:</b>	Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
<b>Ikasgaiak:</b>	Euskara eta literatura
<b>Gaiak:</b>	Integrazioa, Bizikidetzak, Euskara

**Proposamen pedagogikoa**

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egingo dugu. Aurre-ezagutzak aktibatuko ditugu. Halako galderak izan daitezke:

- Ezagutzen al duzue euskara ikasi duen atzerritarrik?
- Nongoak dira? Zergatik ikasi dute?
- Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue beraiekin?  
Galesen, esaterako, galesera eta ingelesa hitz egiten dira.  
Zuek hara bizitzera joanez gero, galesera ikasiko al zenukete?

### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurre-ezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak konparatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Arreta piztuarazi dieten pasarteak gogoan hartu.
3. Ulertu ez dituzten hitzak, esaerak edo erreferentziak apuntatu. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazio guztiaz jabetzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ulertu dutela ziurtatu. Zalantzak argitu.
2. Bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak partekatu, talde(t)an:

- Zuen herrian bizitzeko, euskara ikastea beharrezkoa ikusten al duzue?
- Integrazzeko balio duela esango zenukete? Zergatik?
- Ingurune euskalduna izan ala ez, herri txikia ala hiria izan... asko baldintzatzen al du horrek euskara ikasteko prozesua?
- Bideoan mutil bat kexu da berak euskaraz baina bertakoek gaztelaniaz egiten dutelako. Zer iruditzen zaizue?
- Atzeritarrek euskara ikasteak ekarri al dezake bertakoek euskara gehiago erabiltzea?
- Atzeritarrei gaztelaniaz egiteko joera al dugu? Itxurak sortzen al du aurreiritzirik, hizkuntza aukeratzeko garaian?

3. Gutxien uste dugunak euskaraz jakin dezake, Euskal Herrian munduko toki guztietatik etorritako jendea bizi baita. *Zumaia eleaniztuna* dokumentalaren '[promoa](#)' ikusi.


- *Zuen ustez, Zumaian zenbat hizkuntza hitz egiten dira?*
- *Eta zuen herrian? Eta Euskal Herrian?*

[Zumaia eleaniztuna](#) dokumental laburra ikusi (euskarazko azpтитuluak aukeratuta), eta komentatu.



- *Ezagutzen al duzue zuen herriko aniztasuna?*
- *Zenbat hizkuntza dakizkizue zuek?*
- *Zenbat hizkuntzatan dakizue "eskerrik asko" esaten? (arbelean ipini guztiak)*

Taldeka jarri, eta [101.ahotsak.eus](http://101.ahotsak.eus) webgunean bilatu:



Hitzak arbelean idatziko ditugu (nola idatzi ez baldin badakigu, gutxi gorabehera: ahoskeraren arabera).

**4. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen gara daitezke. Sei adibide:

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Kazetari bihurtu, eta euskara ikasi duen norbait elkarrizketatu. Bi-hiru ikasleko taldeetan, galderak aurrez gelan prestatuta. Elkarrizketatua Euskal Herrira etorritako pertsona bat izan daiteke edo bertan jaioa izanik euskara nagusitan ikasi duena. Elkarrizketa bideoan egitea

gomendatzen dugu, gero ikasgelan ikusi ahal izateko (elkarrizketak egin aurretik, ikus [jarraibide orokorrak](#)), eta elkarrizketatuari argazkia ateratzea. Ikasleek aurkezpen txiki bat ere prestatuko dute (elkarrizketatuaren biografia laburra, adibidez; nondik ezagutzen duten, etab.), bideoa erakutsi aurretik ikaskideei azalpenak emateko.

Jasotakoarekin hainbat lanketa egin daitezke ondoren ere. Hona hemen bi aukera (gela bi taldetan bana daiteke, eta batzuek bata egin eta besteek bestea; lanketa bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta interesgarria izan daiteke biak ezagutzea):

- a) Bideo guztietako pasarte onenekin ikus-entzunezkoak prestatzea, dokumental/erreportaje laburrak (3-5 minutukoak), sare sozialen bidez zabaltzeko (lan hau egiteko bideoak editatzeko programaren bat ezagutu behar dute eta ereduak eman beharko zaizkie).
  - b) Elkarrizketa guztiekin aldizkari digital bat osa daiteke, webgune edo blog batean jartzeko: transkribatu, erredaktatu eta forma eman. Horrez gainera, inprimatu, kopiak egin, eta ikastetxean bana daiteke. (Lan hau egiteko ereduak ematea komeni da: egunkariak, blogetako elkarrizketak... Elkarrizketek titularra izango dute, azpitolularra, argazkia, argazki-oina...).
- *“Munda zabalean”*. Munduko hizkuntza gutxituei erreparatuko diegu. Euskara bezala egoera diglosikoan dauden hizkuntzetan jarriko dugu arreta. Ikasleak ikertzaile bihurtuko dira. Taldeka jarri, eta informazioa bilduko dute. Taldeetako batek informazio orokorra bilduko du (zenbat hizkuntza gutxitu egon daitekeen, zein den egoera, diglosia zer den...). Gainerako taldeek, berriz, hizkuntza bana hautatuko dute, eta horri buruzkoak topatu (non hitz egiten den, zein den egoera, zenbat hitzun dituen, etab.).  
Bildutako informazioa ikaskideen aurrean azalduko dute, eta aurkezpen txiki bat prestatuko dute horretarako (mapak, argazkiak... adibidez [Prezi](#) programarekin; erabiltzen ez badakite, ereduak erakutsiko zaizkie).
  - *“Gaur egunera begira”*. Gaur egun mundua hementxe bertan daukagu. Ez daukagu bidaiatu beharrik kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzeko. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? [101 L proiektuaren](#) berri eman.  
[101.ahotsak.eus](#) webgunean saltseatuko dute ikasleek, binaka. “Gaiak” ataleko gaietako bat aukeratu beharko du bikote bakoitzak (adibidez: “Euskarari buruzko iritziak”), eta bi pasarte polit bilatu. Ondoren, aurkezpen txiki bat egin beharko dute, ikaskideei bideoa erakusteko:

- Zein pasarte aukeratu dituzten esan.
- Hitzun horiek nongoak diren eta non bizi diren.
- Zergatik aukeratu dituzten pasarte horiek.
- Bideo-pasarteak erakutsi gelan: denek ikusi eta entzun.
- Beraien iritzia emango dute aukeratutako gaiari buruz.

- **"Ika-mika"**. Eztabaida egingo da gelan, ikasleak taldeetan banatuta. Hauxe izan daiteke eztabaidagaia: *Atzerritarrek euskara ikasi beharko lukete?*  
Seiko taldeak baldin badira, hiru iritzi batekoak izango dira, baiezkoaren aldekoak, eta beste hirurak bestekoak, ezezkoaren aldekoak (zotz eginda erabaki daiteke bakoitzaren rola zein izango den). Hirukote bakoitzak arrazoiak eta argudioak prestatuko ditu, eztabaida hasi aurretik bilduta.  
Hasi aurretik, ikasleei eztabaiden ezaugarriak eta erabiltzen diren formulak edo testu-antolatzaileak zein diren azaltzea komeni da (ikus [sekuentzia didaktiko hau](#), bereziki 84-85 orrialdeak), esateko modua esaten dutena bezain inportantea baita.
- **"Bestearen azalean"**. Antzezlan txikiak (*esketxak*) prestatu lau-bost ikasleko taldeetan, hizkuntzeekin eta atzerritarrekin loturiko aurreiritziei buruzko egoera bat asmatuta, pentsarazteko bidea ematen duena. Adibide batzuk:

1. Atzerritarrei gaztelaniaz esatea lehenengo hitza, kanpotar itxura hartuta.
2. Beraien hizkuntzan hitz egiten ari diren bi atzerritarri gaizki begiratzea, eta albokoari esatea atzerritarrak ez direla integratzen.
3. Atzerritar bati buruz gaizki esaka aritzea, pentsatuz ez duela euskara ulertuko (adibidez, lana kentzera datozela).

Behin egoera hori antzeztu ondoren, gainerako taldeek nola aldatu proposatuko dute (pertsonaien jarrerak, egoera bera...) eta segidan antzezleek egoera berria antzeztuko dute (bat-batean, inprobisatuta). Talde guztiekin berdin egingo da.

Antzezteko unean, edukiaren egokitasunaz gainera, hauek ere kontuan izan behar dituzte: espazioaren erabilera, begirada ikusleei zuzentzea, pertsonaien gorputz-adierazpena, ahotsaren entonazioa... Aukera bat: ikasturte bukaeran antzeztan guztiak beste gela batzuetako ikasleen aurrean egitea.

- *"Jolasean"*. 2-3 laguneko taldeetan jarri. Abesti laburrak ikasiko ditugu, ezagutzen ez ditugun hizkuntzetan. Hona hemen [101.ahotsak.eus](http://101.ahotsak.eus) webgunean ("Gaiak" > "Abestiak") jasota ditugunetako batzuk: [persieraz](#), [finlandieraz](#), [lingaleraz](#), [errusieraz](#), [japonieraz](#), [mongolieraz](#), [arabieraz](#), [estonieraz](#), [koreeraz](#), [armenieraz](#), [grezieraz](#), [lituanieraz](#), [taiweraz](#), [eslovenieraz](#), [xhoseraz](#), [samieraz](#), [italieraz](#), [alemanez](#), [georgieraz](#), [berebereaz](#), [ukranieraz](#), [nepaleraaz](#), [lituanieraz](#), [fangeraz](#), [mineraz](#), [faroeraz](#), [susueraz](#), eta [suedieraz](#).

Hizkuntza horiek papertxoetan idatzi, tolestu, eta zakutxo/poltsatxo batean sartuko ditugu. Ondoren, talde bakoitzeko ordezkari batek bat hartuko du.

Abesti bat jarriko dugu, pantaila handian, guztiok ikusi eta entzuteko, jolasa zein den azaldu aurretik:

- 1. Taldekideek egokitu zaien abestia ikasiko dute. Horretarako, idatziz jarriko dute (ahal den bezala: ulertzen dugun bezala, guretzat zentzurik ez izan arren eta hitzak asmatu arren). Koreografia bat ere asma dezakete edo antzeztu (erdi-mozorrotuta).
- 2. Abestiaren euskarazko bertsioa egingo dute. Doinua ez da aldatuko, baina letra bai. Umorezkoa izan daiteke, drama... abestiaren arabera erabakiko dute zer lanketa egin. Irudimena erabili!
- 3. Abestiaren bi aldaerak ikaskideen aurrean kantatuko (eta antzeztuko) dituzte. Eta ondoren abestiaren bideoa erakutsiko dute.

Lehiaketa ere antola daiteke. Bozka gehien lortzen duen bikotea/hirukotea irabazle!

5. **ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek, gelakideei beraien lanaren emaitzak ezagutarazteko. Aurkezpenak laburrak izango dira eta

ondo legoke bideokamerarekin grabatzea, ahozko jardunen bilakaera ikusteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tartea izango da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea komeni da, eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarri gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

## ESPAZIOEN ANTOLAKETA

---

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, eta espazioa antolatzeko orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeko aukera bera dutela ziurtatuko da, eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo. Espazioari dagokionez aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez jartzeko.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek beraien esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotuko dugu: mahai eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurrian eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili, kandelak)... Kontuan izan behar dugu sutondoan egiten zen transmisioa ikasgelara eramatea dela helburua, eta horretarako giro aproposa sortzea garrantzitsua dela. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteko eta entzuteko gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dira. Etxean bezala.

Ikasleek beraien kabuz informazioa lortzeko edo ekoizpenak prestatzeko egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozotasunean oinarritutako proiektua den heinean, inguru hurbilean testigantzak biltzeari garrantzia emango zaio.



Komeni denean, jolaslekua edo kanpoko eremuren bat ere erabil daiteke lanketa batzuk egiteko (mugimendua eskatzen dutenak, jolas girokoak, leku zabalagoa izateko).



# DENBORALIZAZIOA

---

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero, lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

- 1. saioa.* Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikustea.
- 2. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere has gaitzeko jardurekin).
- 3. saioa.* Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk.
- 4. saioa.* Ikerketa eta informazio bilketa, ekoizpena gauzatzeko (kasuan kasu, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke).
- 5. saioa.* Ekoizpena partekatu eta grabatu.
- 6. saioa.* Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin.

## Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasle guztientzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Internetarako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek beraien ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Konexioa izatea ezinbestekoa izango da.

- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak, etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurki ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu (Google Drive). Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

## MATERIALAREN EGILEAK

---

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkarteak sortu du, [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) proiektua oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratu da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. Gidoiak, zutabeak (Euskaldunon Egunkaria, Berria) eta oroimen historikoari buruzko lanak idatzi ditu, eta baita literatura ere (2012. urteko Lizardi Saria). 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. Badiharduguk hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta besteak beste Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **AINZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetako aholkulari pedagogikoa eta elkarteko koordinatzailea da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da. Euskara klaseak eman ditu Eusko Jaurlaritzako Barne Sailean. Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratu da. Arte Ederretan lizentziatua, gehienbat ikusentzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamaralari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile moduan dihardu. Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **IKER UGALDE ALBERDI.** Bideoen edizioaz arduratu da. Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua, HUHEZIn. Hainbat proiektutan aritu da lanean, besteak beste Hamaika Telebistan eta Eusko Jaurlaritzako Kulkurklik proiektuan. Badihardugu elkarteko langilea da. Herritartasunerako Hezkuntza irakasgairako ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0).
- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatu diogu, ahozko testuei dagokioenean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHU eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoko partaide ere izan da.

Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozkoitasuna lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

- **JAIONE GISASOLA URZELAI.** Edukien diseinu eta garapenarekin lagundu du. Euskal filologia ikasketak amaitu berri ditu Gasteizen, eta esperientzia dauka pedagogia arloan, aisialdiko begirale gisa.

## BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, Kike (2002). *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran*. Ikastolen Elkartea: IX. Jardunaldi Pedagogikoak: 417-465
- Amonarriz, Kike. (2012). *Txisteeek euskaraz ez dute graziarik*, Campusa 79 zk. 39.or.
- Askoren artean (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz
- Barquín, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Emakunde. Gasteiz
- Bassols, M. (2003). *Modelos textuales teoría y práctica*, Octaedro ediciones.
- Bronckart, J.P. (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Fundación infancia y aprendizaje. 2004, Madrid.
- De Pietro, J.-F. & Dolz, J. (1997). *L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable?*. Education et recherches.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona*.
- Dolz, J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris, ESF.
- Dolz, J., Noverraz, M. & Schneuwly, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3<sup>e</sup>/4<sup>e</sup>). Bruxelles, De Boeck.
- Dolz, Joaquim; Vilá, Montserrat (1997): *L'oral formal*, Articles.
- Dolz, J., Schneuwly (1997). *Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. Textos de didáctica de la lengua y literatura*. 11, 77-98.
- Eizmendi, I. (2015). "Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91.
- Esnaola, I. (2000). [Gazteak eta erregistro kolokiala](#), *HIK-HASI*, 49.
- Euskararen Aholku Batzordea (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- Eusko Jaurlaritza (2013). V. *Inkesta Soziolinguistikoa: Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Iparraldea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. 218. alearen gehigarria.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila (1993). [Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarriko eskubideen gidaliburua](#). Emakunde, Gasteiz
- Erriondo L., Bilbao B., Garagorri X., Idiazabal I., Iztueta P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarriko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar. Gasteiz

- Garcia-Azkoaga, I.M. (2015). Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*.
- García-Azkoaga, Ines. 2015. *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* <http://www.euskonews.com/0701zbk/gaia70103eu.html> Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.eigv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- Ibarra, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. N.U.P. Iruñea
- Idiazabal, I. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Labayru Ikastegia. Bilbo
- Idiazabal, I. eta Garcia-Azkoaga I.M.: [Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza](#). Bilbao, EHU.
- Kagan, S. (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*.
- Medgyes, P. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- Lledó, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Emakunde. Gasteiz
- Pavón Amaia, Zuberogoitia Aitor (2011). *Leintz bailarako nerabeak eta ikus-entzunezko edukien kontsumoa, digitalizazioaren garaian*. Uztaro 78, 31-49 orr. Bilbo
- Rincón, Ana (1997). [Ikastetxearen hezkidetzaren eredu egiteko gida. I tomoa](#) Emakunde. Gasteiz
- Rincón, Ana (1997). [Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak. II tomoa](#) Emakunde. Gasteiz
- Rincón, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Emakunde. Gasteiz
- Sanchez Carrion, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Lizarra.
- Soziolinguistika Klusterra (2011). [Hizkuntzen ahozko kale-erabilera. Euskal Herriko VI. neurketa](#).
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH4 eta DBH2) <http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>.
- Zalbide, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?*. Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Ikastolen Elkarte. Donostia
- Zuazo, Koldo (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Elkarlanean. Donostia



Ikasmaterial honek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren onespena dauka.  
2017/10/19